Lanbide Heziketako IV. Euskal Plana

EUSKADI
LANBIDE HEZIKETA

Lanbide Heziketa desberdin baterantz

I. multzoa: Abiapuntuko oinarriak 2
1.1 Planaren arrazoiak eta aukerak 2
1.2 Dokumentuaren eskema....3
1.3 Lanbide Heziketako IV. Euskal Plana Eusko Jaurlaritzaren ekintza-esparruan 4
1.4 Lanbide-heziketaren Europako testuingurua....8
1.5 Arauak....10
II. multzoa: Testuinguruan kokatzea....12
2.1 …Aldaketa global bizkortuko unea....12
2.1.1 Aldaketa geopolitikoa....12
2.1.2 Aldaketa soziala 13
2.1.3 Aldaketa ekonomikoa....15
2.2...gure enpresen lehiatzeko modua eta pertsonen enplegagarritasuna eraldatzen duena... 17
2.2.1 Balio-proposamenaren eraldaketa 17
2.2.2 Nazioarteko presentziaren eraldaketa....17
2.2.3 Enpresa-ereduaren eraldaketa 18
2.2.4 Pertsonen enplegagarritasunaren eraldaketa....19
2.3 ...eta, beraz, Lanbide Heziketako Euskal Sistema eraldatzea eskatzen duena....21
2.3.1 Heziketaren eraldaketa 21
2.3.2 Berrikuntzaren eraldaketa....24
2.3.3 Ekintzailetzaren eraldaketa....25
2.3.4 Nazioartekotzearen eraldaketa 25
2.3.5. Lanbide-heziketako zentroen sarearen eraldaketa....25
2.3.6 Lanbide Heziketako Euskal Kontseilua 27
2.3.7 Lanbide Heziketako Sailburuordetzaren laguntza-erakundeak....27
III. multzoa: Lanbide Heziketako IV. Euskal Plana....28
3.1. Planaren oinarriak 28
3.2. Planaren metodologia eta eremua....29
3.3 Planaren helburuak eta jarduera-ildoak 30
A. LANBIDE HEZIKETA INTEGRATUA....31
B. BERRIKUNTZA APLIKATUA....35
C. EKINTZAILETZA AKTIBOA....37
D. NAZIOARTEKOTZEA 38
E. LANBIDE-HEZIKETAKO ZENTROAK 40
IV. blokea: Planaren gobernantza 43
4.1 Lanbide Heziketako IV. Euskal Planaren kudeaketa-organoen diseinua....43
4.2 Jarraipen- eta ebaluazio-sistema....46
V. multzoa: Ekonomia- eta aurrekontu-alderdiak. 49

I. multzoa: Abiapuntuko oinarriak

1.1 Planaren arrazoiak eta aukerak

Euskadik tradizio luzea du Lanbide Heziketa (LH) enpresen eta pertsonen premietara aldatzean eta moldatzean, eta horrek ahalbidetu du lanbide-heziketako euskal eredua nazioarteko erreferente izatea. Gobernuak lanbide-heziketako hainbat euskal plan onartzeak (1997, 2004 eta 2011) bultzada irmoa eta denboran jarraitua ekarri dio sistemari, eta funtsezko eta lehentasunezko sistema gisa ulertzen dugu gure ekonomia, enpresak, enplegu-hobekuntza eta, azken finean, gure gizartearen ongizatea garatzeko.

Baiezta dezakegu, hortaz, gure lanbide-heziketaren gaur egungo kokapena berau etengabe eraldatzetik datorrela, eta antolakuntzaren eta ekonomiaren arloko ahalegin handiak egin dira horretarako. Horrek bide eman du gaur egungo krisiaren aurrean ondo kokatuta egoteko eta esperientzia garrantzitsua hartzeko, aldaketei aurre egiteko egonkortasunaren eta prestakuntza onaren ikuspuntutik.

Legegintzaldi honetarako Plan Estrategikoen egutegiaren baitan, Gobernuak erabaki du Lanbide Heziketako IV. Euskal Plana egitea bultzatzea 2014. urtean. Erabaki horren atzean, plan hau egitearen egokitasuna bermatzen duten hainbat arrazoi daude:

- Plangintza estrategikoaren esparrua garatzeko nahia lanbide-heziketaren arloan X. legegintzaldirako, euskal giza kapitala eta haren enplegagarritasuna bultzatzeko azken xedearekin, gaitasuna eta ezagutzak hobetzearen bidez eta espezializazioaren eta sektore berrien garapenaren aldeko apustu irmoa eginez.
- Merkatu globalean euskal industriaren lehiakortasuna indartzeko erabaki sendoa eta, aldi berean, pertsonen enplegagarritasuna bultzatzea eta Euskadin giza garapenari eta gizarte-kohesioari ekarpena egitea.
- Lanbide-heziketako euskal sisteman eraldaketa-prozesu bat bultzatzeko premia, haren sendotasunak oinarri hartuta, Euskadiko enpresa-ehunak aurre egin behar dion inguru lehiakor berritik eratorritako erronken erantzun gisa.
- Lanbide Heziketako Sailburuordetzaren baitan zehaztutako helburuak eta lehentasun estrategikoak garatzeko premia. Horiek "LHeuskadi2015" agenda estrategikoan jasota daude.

Lanbide Heziketako IV. Euskal Planaren indarraldia 2016an amaitzen den arren, lanbide-heziketako euskal sistemaren hurrengo eraldaketa gidatu behar duen tresna gisa aurkezten da. Gure eredua egokitzen, irekitzen eta modernizatzen jarraitzeko prozesu bat da eta esparru berri bat diseinatzearekin eta abian jartzearekin amaituko da. Hain zuzen, gaur egungo sendotasunetatik abiatuta eraikiko da, eta lanbide-heziketan nazioarteko erreferente gisa kokatuko gaitu behin betiko.

1.2 Dokumentuaren eskema

Jarraian, Plana osatzen duten eduki-multzo nagusiak aurkezten dira:

- I. multzoa: Abiapuntuko oinarriak. Lehenengo multzo honetan jasotzen dira Lanbide Heziketako IV. Euskal Plana egitea erabakitzeko arrazoiak, baita berau garatzen den esparru operatiboa ere. Gainera, araudi-testuingurua zehazten da, eta Euskadin lanbide-heziketari eragiten dioten planak, legeak eta dokumentuak aztertzetik egin da.
- II. multzoa: Testuinguruan jartzea. Atal honetan agertzen dira lanbide-heziketarekin zerikusia duten aldaketa sozio-ekonomiko global nagusiak eta horiek Euskadin duten eragina. Halaber, aldaketa horiek enpresen lehiakortasunean, pertsonen enplegagarritasunean eta Lanbide Heziketako Euskal Sisteman eragiten dituzten eraldaketak aztertzen dira.
- III. multzoa: Arloak, helburuak eta jarduera-ildoak zehaztea. Zati honetan Lanbide Heziketako IV. Euskal Planaren esparru estrategikoa zehazten da eta, besteak beste, Plana osatzen duten arloak, helburu estrategikoak eta jarduerak jasotzen dira.
- IV. multzoa: Planaren gobernantza: Azkenik, eta egitura estrategikoa osatu ondoren, Plana kudeatzeko mekanismoak zehaztu dira, aurreko planetako ikaskuntzetatik eta Lehendakaritzako Koordinazio Zuzendaritzak arlo honetan egindako gomendioetatik abiatuta.
- V. multzoa: Ekonomia- eta aurrekontu-alderdiak.

Lanbide Heziketako IV. Euskal Plana Lanbide Heziketako Euskal Kontseiluak adostua eta hitzartua izan da, lehentasunen, helburuen eta ardatz estrategikoen ikuspegi adostua lortzeko asmoz.

Dokumentuaren edukien eskema



1.3 Lanbide Heziketako IV. Euskal Plana Eusko Jaurlaritzaren ekintza-esparruan

Eusko Jaurlaritzak 2013-2016 aldiko X. Legegintzaldiari ekin dio Euskadi dinamiko, moderno eta kohesionatu baten liderra izateko ilusioarekin. Helburu horrekin, Gobernu Programan oinarrizko hiru konpromiso hartzen ditu Euskal Gizartearen aurrean: Pertsonekin, Bakearekin eta Elkarbizitzarekin, eta Euskadirentzako Estatus Politiko berriarekin.

Lanbide-heziketa modu naturalean txertatzen da Pertsonen aldeko Konpromisoaren baitan, eta Hazkunde Jasangarriaren eta Giza Garapenaren aldeko konpromisoa irudikatzen du. Gaur egungo abagune zail honen aurrean, azken 30 urteotako krisialdi ekonomikorik txarrenetariko bat gainditzeko erronkari egin nahi diogu aurre, gure printzipio eta balioetatik abiatuta. Guztiz sinetsita gaude aurrera ateratzeko gai izango garela.

Oso jakitun gaude, gainera, pertsonek ez dituztela baldintza eta kokapen berberak gizartean eta ezabatu beharreko oztopoak eta estereotipoak daudela oraindik, bai lanbide-heziketaren arloan, bai lan-merkatuan eta enpresetan, emakumeek eta gizonek prestakuntza jaso dezaten mota guztietako lanbide-aukerak izateko eta horietan jarduteko.

Horregatik, Pertsonen Euskadi bat eraikitzeko lan egingo dugu; gure apustua emakumeentzako eta gizonentzako enplegua defendatzearen eta ekonomia suspertzearen aldekoa izango da, gizarte- eta ongizate-sisteman aurrera egiteari utzi gabe.

Konpromiso hori zenbait plan estrategikoren bidez antolatzen da, eta identifikatutako elementu horietako bakoitzari erantzuna eman nahi diete. Lanbide-heziketa hezkuntzaren ingurune natural batetik dator, baina inpaktu handia dauka euskal ekonomiaren beste arlo batzuetan; izan ere, langileen enplegagarritasunari eta enpresen lehiakortasunari eragiten dio. Horregatik, arlo horietan eragina duten Gobernuko gainerako planekin koordinatzeko asmoarekin sortu da plan hau.

Ildo horretan, eta lanbide-heziketak pertsonen enplegagarritasunean daukan garrantziagatik, plana egiteko, gauzatzeko ebaluatzeko, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua eta Hobetuz erakundeen, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailaren eta zerikusia duten jarduera edota erantzukizun batzuk dituzten beste erakunde batzuen partaidetza behar du. Lanbide Heziketako euskal Kontseilua aurreikusten da eskumena duen organo gisa eta, erakunde horretan landuko da erakundeen arteko eta sailen arteko partaidetza prozesu osoan.

Eusko Jaurlaritzaren jardueraren esparru estrategiko honetan, Enpleguaren eta Ekonomiaren Susperraldiaren "Euskadi 2020" Esparru Programa onartu zela nabarmendu daiteke, lortutako adostasunagatik eta enplegu gehiago eta ekonomia laster suspertzea lortzeko jasotzen dituen neurri handiengatik. Hainbat gauza barnean hartzen dituen programa da. Herri estrategia gisa taxutzen da, eta 2 multzotan garatzen eta zehazten da: Enplegua Suspertzeko Plana eta Ekonomia Suspertzeko i4 estrategia.

Enplegua Suspertzeko Planak Euskadiko langabeziaren arazoari presazko erantzunak emateko neurriak jasotzen ditu. Aldiz, i4 estrategiak apustu osoa egiten du enpresa-ehunaren alde eta laguntza eskaintzen du etengabe bilakatzen ari den ingurune lehiakor global batera egokitzeko prozesuan.

Lanbide Heziketako IV. Euskal Planak zeharo bat egiten du epe motzean enplegua bultzatzeko eta epe luzean enpresei beren lehiakortasuna areagotzen laguntzeko helburu bikoitzarekin, eta ahaleginak koordinatzen ditu, zehazki, Gobernuaren zortzi planekin. Hain zuzen, eskema honetan agertzen direnekin:

- *Euskadiko espezializazio adimentsua (RIS 3) eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana.* 2012ko abenduan bildu ondoren, Eusko Jaurlaritzak adostu zuen indarrean dagoen ZTBP eguneratzea, RIS3 Euskadi espezializazio adimentsuaren estrategia oinarri hartuta, 2014ko lehen hiruhilekoan osatutako batzorde espezifiko baten bidez. Batzorde hori Lehendakaritzak koordinatzen du.

  2014ko apirilean, planak jaso beharreko ildo orokorrak aurkeztu ziren; hain zuzen, ildo horiek berekin dakarte berehalako erreferentzia egitea honako arlo hauei: garapen teknologikoaren lehiakortasuna, hezkuntza, politika zientifikoa eta osasuna, planaren elementu eragile gisa. Horretarako, Europar Batasunak "hazkuntza adimenduna" estrategian ezarritako prozedura metodologikoak hartu ziren, eta estrategia horren arabera, Europako eskualde baten lehentasunek honako hau izan behar dute oinarri:

- Antzeman daitezkeen indarguneak: enpresa-ehun lehiakorra, berrikuntzak ustiatzeko gai diren trakzio-elementuekin.
- Gaitasun zientifiko-tekniko bereizgarriak.
- Gizarte-erronkei eta merkatuko eskaerei erantzuna emateko gaitasuna.
- Laguntza-tresna espezifikoak, laguntza-programei eta lankidetza publiko-pribatuari dagokionez.

Datozen hilabeteetan, aukeratutako lehentasunezko arloen (Fabrikazio Aurreratua, Energia eta Biozientziak) inplikazioak zabalduko dira erakunde publikoek eta bereziki Eusko Jaurlaritzak jarduten duten gainerako eremuetara: ingurumena, nekazaritzako elikadura, kultura, enplegua, gizarte-zerbitzuak etab. Horiek izango dira ZTBP 2020rako oinarriak.

- *2014-2016 Industrializazio Plana.* Ekonomia Garapena eta Lehiakortasuna Saila buru duen plan hau Gobernuak euskal industriari laguntzeko erabiliko duen tresna da.

  Plan honen helburu nagusia da euskal industriaren lehiakortasuna sendotzea munduko merkatuan, enpresa-proiektu bideragarrien berregituraketa eta biziraupena bultzatuz. Horretarako, hainbat neurri bultzatzen ditu industriak euskal ekonomian duen pisua indartzeko, industria-ehunaren eskura dauden finantzaketa-iturrien eta -tresnen hornidura dibertsifikatzeko, eta laguntza-esparru bat ezartzeko beren gaitasunetara eta premietara egokituta gaur egungo krisiaren testuinguruan. Neurri horien helburua da berrikuntza teknologikoa eta ez-teknologikoa estimulatzea eta jarduera dibertsifikatzea aukera-sektore berrietarantz.

- *Ekintzailetza-jarduerari Laguntzeko Erakunde arteko Plana.* Ekintzailetza-jarduerari Laguntzeko Erakunde arteko Planaren bidez, Eusko Jaurlaritzak gizarte bat lortu nahi du non pertsonek, banaka edo elkarlanean, premiak edo aukerak bultzatuta, jarduten duten ideiak jarduera praktiko bihurtuz eta emaitza hobeak lortuz inguru sozial, kultural eta ekonomiko zalantzagarri batean. Gizarte bat, non ekintzailetza, gizartean aitortua eta balioetsia, ekonomia- eta gizarte-eraldaketako benetako palanka bihurtzen den.

- *IV. Ingurumen Esparru Programa* Ingurumen Esparru Programa 2015-2018 tresna bat da Jaurlaritzak daukana Rioko Ingurumenari eta Garapenari buruzko adierazpeneko lehenengo printzipioa lortzeko. Nazio Batuek 1992an egindako konferentzian egin zen adierazpen hori, eta, oraintsu berretsi dute Rio+20n, zeina pertsona guztiek –gaurkoek eta etorkizunekoek– kalitatezko ingurunean bizimodu duina izateko eskubideari buruzkoa baita.

  Euskal Autonomia Erkidegoan, ingurumen-baimenen sare garrantzitsu batek osatzen du ingurumen-arloko arau-esparrua, landu behar dena, Administrazioak ingurumen-gaietan dituen prozedurak bizkortu eta sinplifikatzeko zerbitzu publiko azkarragoa eta eraginkorragoa emateko. Gainera, aintzat hartu behar dugu ezen, egungo paradigma sozioekonomikoa dela-eta, ingurumen-aldagaia beste tresna bat dela gure Gobernuarentzat hain funtsezkoa den erronka bat lortzeko: Ekintzailetza eta ekonomia produktiboa.

- *2014-2016 aldirako Enpresak Nazioartekotzeko Plana.* Eusko Jaurlaritzaren funtsezko tresna gisa zehazten da Plana, X. legegintzaldian euskal enpresen nazioartekotzearen babesa planifikatzeko eta zuzentzeko.

  Planaren xede nagusia da euskal enpresak (bereziki ETEak) nazioartean txertatzea eta beren lehiakortasuna hobetzea, gaur egungo krisi-egoeran beren ahalmen eta beharrizanetara egokitutako laguntza-esparrua ezarriz, euskal enpresen irekitasuna eta nazioartekotasuna bultzatuz, kanpoko merkataritza indartuz eta sendotuz, nazioarteko euskal ezarpenak areagotuz eta Euskadira kanpoko inbertsioa erakarriz.

- *Euskararen Agenda Estrategikoa.* Eusko Jaurlaritzak hizkuntza-politikaren esparruan legegintzaldi honetan sailetan eta onartutako planetan aurrera eraman beharreko zeharkako jarduna zehaztea da agendaren helburua.

  Horretarako, Hizkuntza Politika Sailburuordetzak aurreko urteetan bultzatutako ildo espezifikoak bat egingo dira euskararen erabilera sustatzeko planekin eta programekin Eusko Jaurlaritzaren

beraren sektore desberdinetan, 2012-2016 gobernu-programan hizkuntza-politikari aitortutako zeharkakotasuna bermatzeko eta euskara sustatzeko ekimen guztien ikuspuntu orokorra eta osoa izateko.

- *Unibertsitate-plana.* Hurrengo Unibertsitate Planak lanbide-heziketaren eta unibertsitate-ingurunearen interesekoak ere badiren arloak bilduko ditu, hain zuzen ere, elkarrekin garatzeko potentzialtasun handia duten arloak. Horien artean, honako hauek nabarmentzen dira:
  - Prestakuntza lanbide-heziketaren bidetik egin dutenak graduko eta graduondokoko prestakuntzara sartzeko pasabide malguak jartzeko aukera.
  - Berrikuntza teknologikoak eta zerbitzuen berrikuntzak titulazioen eskaintzan eta eskarian eragindako aldaketen intzidentzia.
  - LHren sistemak bere irakasleak prestatzeko duen beharra, bai gaur eguneko erronkei aurre egiteko eta bai lanbide berrien edo orain dauden lanbideen eraldaketaren testuinguruan prestatzaileak edukitzeko.
  - Ekintzailetza-ekimenen interakzioa, ikasleen nazioartekotzea edo bestelakoak.
- *EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. Plana.* Betetze-egoeran dagoen plan honek aurreikusten ditu, batetik, hamahiru neurri berdintasunaren aldeko gobernantza hobetzeko, eta, bestetik, hiru ardatz berdintasunaren arloan esku-hartze publikoa bideratzeko. Gobernu osorako zeharkako plan gisa pentsatuta dago, eta emakumeen banakako, taldeko eta gizarteko ahalduntzean, gizarte-antolakuntza erantzunkidean eta indarkeriaren biktima diren emakumeentzako prebentzioan eta arretan beharrezkoa den aldaketarako aurrerapausoak ematearen alde egiten du.
- *Hezkuntza-sisteman hezkidetza eta genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko Gida Plana*. Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak bultzatutako plan hori hezkuntza-sistemari zuzentzen zaio eskola-eredu mistotik hezkidetzailera igarotzeko eraldaketa-prozesu bat sustatzeko eta genero-indarkeria eta sexismoan oinarritutako indarkeria-adierazpen oro prebenitzen laguntzeko

1.4 Lanbide-heziketaren Europako testuingurua

Europako Batzordeak Europa 2020 Estrategiarekin daukan ekimenak erakusten du apustua egin duela hazkunde "burutsu, iraunkor eta integratzailea" sustatzeko ezinbesteko oinarritzat hezkuntza eta prestakuntza erabiltzearen alde.

Estrategia horren esparruan, eta hazkundea eta enplegua lortzeari edo lantzeari begira, EBk hainbat mekanismo garatu ditu lanbide-heziketaren esparruan. Horien artetik nabarmentzekoak dira "Hezkuntza eta Prestakuntza 2020 (EP2020)" izeneko esparru estrategikoa eta hezkuntzaren eta lanbide-heziketaren alorrean (HLH) lankidetza indarturako hartutako tresnak. "Copenhagueko prozesua" delakoan biltzen dira ekimen horren erreferentziazko giltzarriak. Berrikusketa eta planteamendu eguneratuenak, berriz, 2011ko "Brujaseko komunikatua"n daude jasota. Lortutako emaitzen analisian oinarritzen da azken komunikatu hori; halaber, 2011-2020 aldirako helburu estrategikoak ezartzen ditu.

Europako Batzordea sektore batzuetako eta besteetako eragileekin (enpresak, sindikatuak, arlo akademikoa, gobernuz kanpoko erakundeak, kontsumitzaileen erakundeak) elkarlanean ari da industria-politika moderno baten esparrua ezartzeko, globalizazioaren aukerak baliatzen lagunduz. Esparruak gero eta nazioartekoagoa den balio-katearen elementu guztiak lantzen ditu, lehengaien eskuragarritasunetik hasi eta salmenta osteko zerbitzuraino, baita beste alderdi batzuk ere, prestakuntza, esaterako.

Izan ere, estrategiak jasotzen du herritarren prestakuntza areagotzea dela bitarteko bakarra arlo ekonomikoan, sozialetan eta ingurumenekoan jasangarria den eredu ekonomikoa lortzeko. Gainera, bereziki azpimarratzen ditu hezkuntza eta prestakuntza, hazkuntza hirukoitza sustatzeko:

- Adimenduna: hezkuntzan, ikerketan, berrikuntzan eta teknologia berrietara egokitzean errendimendu handiagoa daukan ekonomiarekin.
- Jasangarria: baliabideak eraginkortasun handiagoaz erabiltzen dituen ekonomiarekin, berdeagoa eta lehiakorragoa.
- Integratzailea: enplegu-maila handiko ekonomiarekin, ekonomiaren, gizartearen eta lurraldearen arloko kohesioa ekarriko duena. Ildo horretan, Europa 2020 Estrategiak adierazten du emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatuko duten politikak beharko direla, lan-biztanleriaren parte-hartzea areagotzeko xedez. Horrela, hazkuntzari eta gizarte-kohesioari lagunduko zaio.

> *EBk hurrengo hamarkadarako duen hazkunde-estrategia da Europa 2020. Aldatzen ari den mundu honetan, nahi dugu EB bilakatzea ekonomia adimenduna, jasangarria eta inklusiboa. Elkar indartzen duten hiru lehentasun horiek, lagundu egin beharko liekete EBri eta haren estatu-kideei enpleguaren, produktibitatearen eta kohesio sozialaren maila handia sortzen.*
>
> *Zehazki, Batasunak bost helburu handi ezarri ditu - enpleguaren, berrikuntzaren, hezkuntzaren, gizarteratzearen eta klima/energiaren arloetan- 2020an lortzeko. Estatu-kide bakoitzak bere helburuak ezarri ditu estatu-mailan arlo horietako bakoitzerako. Europa-mailako eta estatu-mailako ekintza espezifiko horiek eusten diote estrategia honi.*
>
> ***José Manuel Barroso***
> ***Europako Batzordearen burua***

Hazkuntza hori lortzeko, lanbide-heziketak funtsezko eginkizuna dauka. Batzordeak esplizituki eskatzen die estatu-kideei gaitasunetan inbertitzeko, lanbide-hezietako programetan malgutasuna areagotzeko, lanbide-heziketaren eta lan-merkatuaren artean loturak garatzen jarraitzeko, lanbide-heziketari buruzko iritzia hobetzeko eta haren presentzia sustatzeko enpresetan.

Testuinguru horretan, Ikaskuntzaren Europako Aliantzaren eginkizuna nabarmendu daiteke, Hezkuntza eta Kultura Zuzendaritza Orokorrak eta Enplegu, Gizarte Gaiak eta Inklusioa Zuzendaritza Orokorrak elkarrekin koordinatua. Agintari publikoak, enpresak, gizarte-eragileak, Lanbide Heziketako

hornitzaileak, gazteen ordezkariak eta beste giltza-eragile batzuk batzea du xede, Europan ikaskuntzako eskemak eta ekimenak bultzatze aldera. Eusko Jaurlaritza izan da ekimen honetara atxiki den Europako lehenengo eskualde-agintaria.

1.5 Arauak

Euskal lanbide-heziketak araudi-esparru zabal baten baitan garatzen du bere jarduera. Nahitaez betetzeko arauen artean ditu estatuko eta erkidegoko legeak, indarrean dagoen legezkotasunaren arloa zuzentzen dutenak, eta halaber, Europako esparruko erreferentea gaur egungo eta etorkizuneko garapenean.

Lanbide-heziketaren arau-egoera Euskadin[1]
(Erreferentziazko arau nagusiak)



Iturria: guk egina, informazio publikotik abiatuta

[1] Halaber, Lanbide Heziketako IV. Euskal Planarekin daukan zerikusia dela-eta, kontuan hartu behar dira epe ertainean onartzekoak direlarik orain izapidetzen ari diren arautegiak: Lanbide Heziketako lege-proiektua, "prestakuntza duala alternantzian" ereduaren dekretua, Lanbide Heziketari aplikatutako Ikerketa eta Berrikuntzako Euskal Autonomia Erkidegoko Zentroa eratzeko dekretua, Lanbide Heziketako Ezagutzaren Euskal Institutua eratzeko dekretua, Lanbide Heziketan aplikatutako Sormenaren Euskal Institutua (ideatk) eratzeko dekretua, Oinarrizko Lanbide Heziketa antolatzeko eta ezartzeko dekretua, hezkuntza-sistemako Lanbide Heziketaren antolamendu orokorrerako dekretua, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketako zentro integratuak arautzeko dekretua.

Estatuko Testuingurua

5/2002 Lege Organikoa	– LHko bi sistemak onartzen dira (lan-arlokoa eta hezkuntza-arlokoa). – Kualifikazioen eta Lanbide Heziketaren Sistema Nazional bat sortu da, LHko tituluak (hezkuntza) eta profesionaltasun-ziurtagiriak (enplegua) egiteko erreferente komuna. – Lanbide-esperientziarekin eta prestakuntzako beste bide ez-formal batzuen bidez lortutako gaitasunak onartzeko sistema jasotzen du. – LHko ikastegi bateratu izendapena aurreikusten die Katalogoan aipatutako irakaskuntza guztiak eskaintzen dituzten ikastegi guztiei.
56/2003 Legea, Enpleguari buruzkoa	– Lanbide Heziketaren azpisistema zehazten du lan-arloan. – Enplegu-politika aktiboen kontzeptu modernoa txertatzen du, hala nola langabeen prestakuntza edo birkualifikazioa lanbide-heziketaren sistemaren bidez.
Hezkuntzari buruzko Lege Organikoa 2/2006	– Lanbide Heziketaren azpisistema erregulatzen du hezkuntza-arloan, baita hasierako LH ere LHko Kualifikazioen Katalogo Nazionalean oinarrituta. – Europan hezkuntza- eta prestakuntza-sistemak bateratzea ahalbidetzen du. – Hasierako Lanbide Kualifikazioko Programak (HLKP) erregulatzen ditu.
Errege Dekretua 1147/2011	– Hezkuntza-sistemako lanbide-heziketako ordenazio orokorra ezartzen du. – Prestakuntza-eskaintza malgutzen du ingurune sozio-ekonomikoko eskaeretara hobeto egokitzea bermatzeko.
Errege Lege Dekretua 3/2012	– Lan-merkatua erreformatzeko presazko neurriak. – Arauak onartzen die egiaztatutako prestakuntza-ikastegiei eta -erakundeei enplegurako lanbide-heziketako sisteman zuzenean parte hartzeko aukera. – Aldaketak egiten ditu prestakuntzako eta ikaskuntzako kontratuan, gazteen enplegua sustatzeko xedez.
Errege Dekretua 1529/2012	– Prestakuntzarako eta ikaskuntzarako kontratua garatzen du eta lanbide-heziketa duala pixkanaka ezartzeko oinarriak ezartzen ditu.
Errege Lege Dekretua 14/2012	– Hezkuntzaren arloko gastu publikoa arrazionalizatzeko presazko neurriak.
Agindua 2518/2013	– Prestakuntzarako eta ikaskuntzarako kontratuaren prestakuntza-alderdiak erregulatzen ditu.
LOMCE 8/2013	– Oinarrizko Lanbide Heziketako titulu berria sortzen du, bestak beste. – Lanbide Heziketako etapa desberdinetarako sarbide guztiak malgutzen ditu.
Errege Dekretua 127/2014	– Hezkuntza-sistemako Oinarrizko Lanbide Heziketako alderdi espezifikoak erregulatzen ditu, oinarrizko titulu profesionalak onartzen ditu eta oinarrizko curriculumak ezartzen ditu.

Euskadiko testuingurua

Dekretua 32/2008	– Hezkuntza-sistemako lanbide-heziketako ordenazio orokorra ezartzen du.
Legea 1/2013	– Bizitza osoan zeharreko ikaskuntzaren euskal sistema agintzen eta erregulatzen du.
Dekretua 46/2014	– Lanbide Heziketako Ikastegi Bateratuak erregulatzen ditu.
Dekretua 47/2014	– Prestakuntza Iragankor Integratuko Programak erregulatzen ditu.

Europako testuingurua

ET2020	– Estatu-kideetan hezkuntza- eta prestakuntza-sistemek garatu beharreko estrategiak eta adierazleak ezartzen dituen programa da.
EQF-MEC	– Herrialde desberdinetako kualifikazio-sistemak elkarren artean lotzen dituen erreferentziazko esparru komuna. – Europako herrialde eta sistema desberdinetako tituluen interpretazioa eta ulermena hobetzeko bihurketa-mekanismoa jasotzen du.
Lanbide Heziketaren kalitatearen bermea	– Erreferentziazko tresna da estatu-kideei laguntzeko LHko sistemen etengabeko hobekuntza sustatzeko eta gainbegiratzeko, Europako parametroak oinarri hartuta.
EUROPASS -EPE-	– Hizkuntzen ikaskuntza-prozesuari laguntzen dion tresna da. – Hizkuntzen ikaskuntza bermatzeko eta dokumentatzeko eskema erregulatzen du.

II. multzoa: Testuinguruan kokatzea

Epe luzeko hainbat aldaketa handiri egin behar diogu aurre. Europan bizitzen ari garen krisiaz harago doan korrontea da eta ekonomiaren eta gizartearen arlo guztietan eragiten du. Aldaketa azeleratuko ingurune honetan, ez dugu zehatz-mehatz ezagutzen hurbil edo ez hain hurbil dagoen etorkizunean sortuko den esparru berria zein izango den, baina uste dugu aldaketa sakonak gertatuko direla eta gaur egun dauden errealitate asko birpentsatu eta gure produkzio-ereduak eraldatu beharko ditugula.

Aldaketa horiek behartzen dituzte gure enpresak "egiteko modua" nahiz antolakuntza-ereduak eraldatzera, lehiakorrak izateko modu bakar gisa gero eta konplexuagoa den ingurune batean. Prozesu hori, gainera azkartu egingo da hurrengo urteetan.

Gaur egun, euskal industria-sektorean, lanpostuen % 70ak lanbide-heziketarekin zuzenean lotuta dagoen titulu bat eskatzen dute. Europan zifra hori % 76ra iristea espero da 2020an. Datu horiek islatzen dute gaur egun Lanbide Heziketak industria-sektorean duen garrantzia, baina, batez ere, erakusten dute lanbide-heziketak izan behar duen funtsezko eginkizuna gure herrialdearen etorkizun sozio-ekonomikoa garatzeko.

Gure enpresa-ehunaren erronka lehiakor garrantzitsuek, horiek lortzeko lanbide-heziketak duen eginkizunarekin batera, eskatzen dute lanbide-heziketako egungo euskal eredua sakon eraldatzea. Eredu hori integratua da, eta lanbide-heziketako maila eta mota guztiak modu malgu eta eraginkorrean biltzen ditu. Enpresengandik gertu dagoen eredua da, eta, prestakuntza dualaren bidez ikasleak produkzio-zentroetara eramanez, indar handiagoa hartzen du. Etengabeko hobekuntzako eta berrikuntza aplikatuko ereduak aplikatuz kalitatearen eta bikaintasunaren aldeko apustua egitea eta Lanbide Heziketa etengabe berritzeko eta hobetzeko grina konbinatzen dituen sistema da.

Eredu honek oso emaitza onak lortu ditu, baina bilakatzeko premia dauka. Dauzkagun indarguneetatik abiatuz eraiki behar dugu prozesu hori, horrela gure enpresen lehiakortasuna sendotzen, gure langileen enplegagarritasuna hobetzen eta giza garapenaren eta gizarte-kohesioaren garapenari ekarpena egiten lagunduko dion sistema berri baterantz joateko.

2.1 …Aldaketa global bizkortuko unea

Une honetan aldaketa global bizkor batean gaude, eta gure enpresen lehiakortasun-ereduan eraldaketa sakona egitea eskatuko du. Aldaketa globala da hiru arlori dagokionez: aldaketa geopolitikoa, aldaketa soziala eta aldaketa ekonomikoa, enpresek lehiatzen duten eta pertsonen enplegagarritasunaren moduan eraldaketa ekarriko duena.

2.1.1 Aldaketa geopolitikoa

Krisi ekonomikoak agerian jarri du, hein handiagoan ahal bada, berroreka global berria. Herrialde garatuetako ekonomiak azken hamarkadan geldotu egin dira. Aldiz, suspertzen ari diren herrialdeak bilakatu dira munduko hazkunde ekonomikoaren motorra, eta industrien lehiakortasuna eraldatu dute mundu-mailan.

Batetik, suspertzen ari diren herrialdeetan sortu dira erakunde berriak eta balio-proposamen berriak eta, gehienetan, ekoizpen-gastu txikiagotan oinarrituak. Horiek sartzeak ekarri du lehiakortasuna argi eta garbi areagotzea gure enpresetarako. Eszenatoki berrian eraginkortasunez lehiatzeko gai izango gara soilik, balio erantsia duten produktu eta zerbitzu gehiago sortzen baditugu.

Hala ere, aldi berean handitzen ari den mundu-mailako merkatua daukagu eta urtero produktu eta zerbitzu gehiago kontsumitzeko gaitasuna duten maila ertaineko 80 milioi pertsona baino gehiago hartzen ditu. Hori dela-eta, gure enpresak munduko mapa berrian kokatu behar ditugu, sortzen diren aukerak baliatzeko, balio-kate globaletan txertatuz eta suspertzen ari diren herrialdeei beren garapenean laguntzea bilatuz.

Joko-eremu berri honetan gure enpresek arau berrien arabera lehiatu behar dute, fisikoki urrunago dauden herrialdeetan eta kultura- eta hizkuntza-alde handiak dituztenetan. Irtenbide bereizleak eta beren premietara egokitutakoak eskatzen dituzten espazio ez hain homogeneoak dira. Eremu horietan gainerakoek baino hobeto egin behar ditugu gauzak, edo gutxienez beste era batera, lehiakorrak izateko.

BPGren bilakaera erreala eta esperotakoa *(hazkundearen % eta 2013ko BPG USD arruntetan)*



Iturria: guk egina, NDFren eta Eusko Jaurlaritzaren Ogasun eta Finantza Sailaren datuetatik abiatuta.

2.1.2 Aldaketa soziala

Gizartea ere aldatzen ari da. Enpresen lehiakortasunean eta gizarte-ongizatean eragin handiena duten gizarte-korronteak hauek dira, besteak beste: biztanleria zahartzea, konektatzeko eta komunikatzeko modua aldatzen duten teknologia berrien erabilera masiboa, gizarte-ohitura berriak, emakumea lan-merkatuan sartzea, familia-ereduak aldatzea edo pertsonak gehiago mugitzea.

Mundu-mailako joera horien artean, euskal lanbide-heziketaren etorkizunean eragin handiena izango duena biztanleriaren zahartzea izango da.

Planetako zenbait gunetan biztanleriaren hazkunde handia dagoela egia izan arren, herrialde eta eskualde gehienetan zahartze-maila handiagoarekin batera dator hori. Nazio Batuen datuen arabera, munduan 65 urtetik gorako 600 milioi pertsona baino gehiago daude, eta 25 urte baino gutxiagoan zenbateko hori bikoiztea espero da. 2035. urterako, 1.100 milioi pertsona, hau da, biztanleriaren % 13, 65 urtetik gorakoa izango da. Joera horrek inpaktu handia dauka ekonomiaren eta gizartearen arlo guztietan.

Joera hori, gainera, bereziki esanguratsua da Euskadin, pentsiodun bakoitzeko 1,7 langile baitaude, eta tasa hori 2 langileko gomendioaren azpitik dago. Gainera, emakume bakoitzeko seme-alaben ratioa 1,3koa da, belaunaldi-ordezkapenerako beharrezkoak diren 2,1en azpitik. 2020an, euskal biztanleriaren % 23k 65 urtetik gora izango du, 1990an irudikatzen zen % 12 baino askoz ere gehiago.

Aldaketa sozio-demografiko honen lehen eragina gastu publikoarekiko presioa handitzea da; izan ere, adin gehiena duten pertsonen pisu erlatiboa handiagoa izango da, bereziki pentsioen gastuei eta osasun-gastuei dagokienez. Kalkulatzen da Euskadin osasunaren eta gizarte-zerbitzuen arloko gastuak BPGren gaur egungo %8 izatetik % 11-15 izatera igaroko dela 2020an, adineko gehiago egotearen eta zerbitzuak pixkanaka hobetzearen ondorioz.

Bestalde, etorkizunean erretiro-adina luza daitekeen arren, hurrengo urteetan agerian jarriko da erretiro-adina betetzean lan-merkatutik irtengo diren pertsonak ordezkatzeko premia larria, kualifikazio desberdina eta handiagoa izan beharko dutenengatik.

Testuinguru honetan, sendotu egiten da talentuak duen eginkizuna enpresa-jardun eta enplegagarritasun hobea lortzeko funtsezko elementu gisa. Talentuen mundu-mailako benetako lasterketa hasi da, eta ibilbide horretan herrialdeek eta enpresek giza kapital ondo prestatua eta lehiakorra bilatzen dute.

Azken hamarkadetan pertsonen eta enpresen mugikortasuna nabarmen areagotu bada ere, talenturik onena lortzeko enpresen eta gobernuen konpetentzia handiak eragin du pertsonak erakartzeko, atxikitzeko eta kudeatzeko estrategia berriak diseinatzeko beharra. Ahalegin hori bereziki beharrezkoa da profesional espezializatuen defizita dagoen eskualdeetan, hala nola Euskadin.

Lanbide-heziketa ere talentuen lasterketa global horretan lehiatu beharko da, eta prestakuntza bikaina eta enpresei egokitutakoa eskaini beharko du, profesionalei bizialdi osoko ikaskuntzan lagunduz.

Talentua erakarri nahi dugu; hala ere, aldi berean, prest egon behar dugu gure gizartea osatzen duten pertsonak prestatzeko eta haien ezagutzak eguneratzeko, horien adina kontuan izan gabe. Guztientzako pentsatutako prestakuntza eskatzen du horrek, ezagutzaren parametro zabalak hartuko dituena eta erakargarria eta eraginkorra izateko beharrezkoak diren elementuak izango dituena.

Biztanleriaren bilakaera Euskadin, adin-tarteen arabera



Iturria: Eustat, Eurostat, Europako Batzordea, Lan Batzordea

2.1.3 Aldaketa ekonomikoa

Krisi ekonomikoak egoeraren araberako ondorio handia ekarri du eta aurreko urteetan egindako aurreikuspen ekonomiko eta sozial guztiak nahasi ditu. Hala ere, produkzio-ereduan aldaketak izatea da gehien kezkatu behar gaituen benetako faktorea. Alderdi horretan gertatzen ari dira gure enpresen lehiakortasunari eragingo dioten egiturazko aldaketak.

Krisi ekonomikoa

Euskadin krisiak estatuko beste eskualde batzuetan baino eragin txikiagoa izan badu ere, gure erakundeek lehiakortasun handiagoa izateari eta industriaren aldeko apustua goiz egin izanari esker, ez dago zalantzarik krisiak kolpe gogorra eman diola gure enpresa-ehunari.

Bost urteko higaduraren ondoren, Euskadik BPG % 1,2 jaitsita itxi zuen 2013. urtea. Testuinguru horrek krisi larri batean murgilduta gaitu eta, gutxienez epe motzean-ertainean, egoera ekonomiko zail batean sartzen hasi gaitu. 2014. urterako hazkunde makala espero da, % 1ekoa, hain zuzen.

Krisi dramatiko horren ondorioa da langabezia milaka euskal familiei eragiten ari zaiela. Ia enplegu beteko egoera amaitu eta % 15 inguruko langabezia dugu, 2013ko amaierako datuen arabera, eta gazteen artean egoera larriagoa da: % 40ko langabezia (16-24 urteko biztanle aktiboak). Portzentajezko hamar puntu baino gehiago igo da langabezia krisia hasi zenetik eta hainbat eragileren aurreikuspenek aditzera ematen dute motel murriztuko dela.

Susperraldia, eta batik bat egoera horretatik sortuko den enpresa-mota, urte hauetan hartuko diren erabakien araberakoa izango da hein handian. Politika horiek islatu behar dute herrialde gisa apustu egiten dugun eredu lehiakorra.

BPG errealaren bilakaera Euskadin, Espainian eta 15-EBn (2006-2013) eta 2014-2016 aldirako aurreikuspena

Urte arteko aldakuntza %-a



Iturria: Ogasun eta Finantza Saileko Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza (2014ko martxora arteko datuak), Eustat eta Estatistika Institutu Nazionala

Aldaketa produkzio-ereduan

Azken urte hauetan eta krisia izan arren, industriak bere indarra erakutsi du enplegu- eta lehiakortasun-berme gisa, eta, beraz, garapenerako giltza-faktore gisa. Garrantzia hartzen du gertakari horrek fabrikatzaile-sektoreek duten pisu handiagatik esportazio-tasan, berrikuntzan eta ekonomiaren produktibitatean; pisu horiek beste jarduera-sektore batzuenak baino handiagoak dira.

Ondorioz, fabrikazioarekin lotutako sektoreekiko interesa berpizten ari dela ikusten dugu. Herrialde asko plan indartsuak bultatzen ari dira beren industria sustatzeko, esaterako: AEBetako Plan Nazionala Manufaktura Aurreraturako, Erresuma Batuak diseinatutako Estrategia edo "*reshoring*" deiturikoak.

Euskadin ere industriaren alde egiten ari gara hazkuntzarako eta etorkizunean enplegua sortzeko bektore gisa. ETEek osatutako produkzio-ehunean oinarritutako industria-tradizio luzea dugu oinarri; hain zuzen, ETE horiek maila teknologiko ertaineko bitarteko ondasunen ekoizpenera bideratuta daude funtsean.

Nolanahi ere, kostu altu erlatiboen egoera batean nazioartean lehiatzeko ez du balio edozein industriak. Fabrikazio aurreratuko eredu batean oinarritzen dena bultzatu behar dugu, balio erantsi handiagoko produktuak eta zerbitzuak sortzea ahalbidetzen duena. Hortaz, erronka zera da, produkzio-jarduera tradizionalak teknologikoki aurreratutako industria berrietan eraldatzea, industria-enpresen egoera berri batera eboluzionatuz.

"Industria-iraultza" berri hau aldatzen ari da produktuak diseinatzeko eta ekoizteko moduari dagokionez, eta, gainera, aldatzen ari da gaur egun fabrika batez dugun kontzeptua ere aldatzeari dagokionez, "etorkizuneko fabrikaren" ideia txertatuz.

Eta etorkizuneko fabrika honetan, garapen teknologikoa da agian aldaketaren funtsezko faktorea, ekoizteko moduak eraldatzen eta produkzio-sektore berriak sortzen ari baita. Aldaketa horrek, gainera, tradizionalki "goi-mailako teknologiakotzat" sailkatutako enpresa-sektoreei ez ezik, industria-enpresa ez hain teknologikoei ere eragiten die, hain zuzen, prozesuetan eta produktuetan teknologia berriak txertatzen ari direnei, bereziki arlo hauetan:

- Ekoizpenari lotutako teknologiak, bereziki robotika, aurrerapauso izugarriak egiten ari dira. Produkzio-prozesuen automatizazio-maila areagotzen ari dira eta eskatutako profil profesionalen kualifikazioa eraldatzen ari dira. Horren ondorioz, automatizatuagoa den etorkizuneko fabrika mota baterantz egingo dugu aurrera eta lanpostu asko deuseztatuko dituenera, baina aldi berean, balio handiagoko beste batzuk sortuko dituenera.
- Suspertzen ari diren teknologiak edo teknologia konbergenteak (nanoteknologia, bioteknologia, zientzia kognitiboa, adimen artifiziala, material berriak, etab.); gero eta gehiago sartzen dira produkzio-prozesuetan, eta produkzio-prozesuen eraldaketa sakona egiteaz gain, zenbait sektore desagerrarazten eta beste batzuk sorrarazten dituzte.
- Informazioaren eta komunikazioaren teknologien integrazioa (digitalizazioa, Internet industriala) produkzio-prozesuetan; industria-ekoizpenaren pertsonalizazioa ahalbidetzen du eta etorkizuneko fabrika-ereduan eraldaketa sakona islatzen du. 4.0 industriaz hitz egiten da fabrika-eredu adimendun eta konektatu bateranzko bilakaera aipatzeko; eredu horretan benetako mundua mundu birtualarekin batzen da, eta informazioaren eta komunikazioaren teknologia modernoak eta industria-sistema konbentzionalak nahasten dira, produkzio-prozesuak aldatuz hainbat sektoretan.
- Fabrikazioaren ingurumen-inpaktua murrizteari lotutako teknologiak; fabrika jasangarriagoak eragiten dituzte, inguruan eragin txikiagoa dutenak.

Euskadik ausarki apustu egiten du industria-berpizkunde honen alde, eta hain zuzen, arlo horretan ezin dugu ahaztu produkzio-prozesuetan teknologia txertatzea ez dela faktore bakarra. Balioa sortzen laguntzen duten jarduerak txertatu behar ditugu (I+G, industria-diseinua, zerbitzuak sartzea, bezeroa orientatzea eta pertsonalizazioa...), baita kudeaketa- eta antolakuntza-eredu berriak ere, langileen partaidetza, lurraldearekiko konpromisoa eta pertsonen gizarteratzea sustatzen dutenak, arreta berezia jarrita emakumea industria-inguruetan lanean hasteari.

2.2...gure enpresen lehiatzeko modua eta pertsonen enplegagarritasuna eraldatzen duena...

Aurreko atalean aztertutako aldaketa-faktoreak gure enpresak lehiatzen diren modua eta langileen prestakuntza-premiak errotik eraldatzen ari dira; izan ere, azkar egokitu behar dira ingurune konplexu eta zalantzagarri batetik eratorritako etorkizuneko erronketara.

Horregatik, enpresak behartuta daude gauzak hobeto egitera lehiatu ahal izateko, beren balio-proposamenak, nazioarteko presentzia nahiz antolatzeko eta kudeatzeko duten modua eraldatuz. Bide horretan, profil profesionalak enpresa-premia berrietara egokitu behar dira; hain justu, gaitasun handiagoa eta espezializazio altuagoa eskatzen dute.

2.2.1 Balio-proposamenaren eraldaketa

Euskal enpresek beren balio-proposamena sofistikatu behar dute, eta beren produktua, berau ekoizteko modua eta bezeroei eskaintzen dieten modua eboluzionatu. Aldaketak fabrikazio-estrategiak eraldatzea eskatzen du, baina, gainera, etengabe berritzea eskatzen du eskainitako produktuetan eta zerbitzuetan, eta une oro zalantzan jartzea negozio-ereduen baliozkotasuna. Aurreko atalean aztertutako joerak direla-eta, eraldaketa honen atzean dauden zenbait zalantza hauek dira:

- Produkzio-prozesuetan teknologia sartzea. Norberaren arlo teknologikoa menperatzea funtsezkoa da, baina, gainera, bere eskaintzari buruz beste teknologia bideratzaile edo berrikuntza teknologiko batzuk izan dezaketen eragina aztertu behar da. Horretarako, etorkizuneko teknologiak identifikatzeko, txertatzeko eta balioan eraldatzeko gaitasuna enpresa-lehiakortasunaren oinarrizko faktorea da.
- Bezeroa ardatz duten estrategiak egitea. Balio-proposamen berri arrakastatsuak diseinatu ahal izateko gero eta zorrotzagoa eta hedatuago dagoen eskaera baten aurrean, bezeroen premiak eta berezitasunak ondo ezagutu behar dira. Horrek ahalbidetu behar du erantzun gero eta partikularragoak eskaintzea; arreta eta pertsonalizazioa, saldu ondorengo laguntza eta finantzaketa bezalako zerbitzuei pisu gehiago emanda.
- Lankidetza eta sareko lana bultzatzea. Gaur inoiz baino gehiago ezinbestekoa da enpresaren eskaintzari balioa erantsiko dioten askotariko aliantzak eta harreman-ereduak izatea arlo guztietan, enpresaren gaitasunak eta ezagutzak osatuz hainbat arlotan, hala nola I+G, diseinua, fabrikazioa eta hornikuntza.
- Berrikuntzari buruzko gogoeta negozio-ereduetan; enpresaren, bezeroen, hornitzaileen, kanalen eta abarren kokapena osotasunean birpentsatuko duena, dauden gaitasunetatik eta ezagutzatik abiatuta sortutako balioa sustatzeko eta areagotzeko modu gisa.

Lanbide-heziketak funtsezko eginkizuna izango du gure enpresen balio-proposamena eraldatzeko beharrezkoak diren profil profesional berriak garatzean. Profil profesional berri hori kualifikatuagoa eta espezializatuagoa izango da bere arloan, eta erantzuna eman ahal izango die teknologiaren aurrerapen azkarrak sortutako aldaketei eta produkzio-ereduko aldaketei. Are gehiago, lanbide-heziketako zentroek ETEetan berrikuntzaren eragile dinamizatzaile gisa jokatu behar dute, aurrerapen-gaitasunak garatuz, eta sektoreen diseinuan eta etorkizuneko negozio-ereduetan aurrera eginez.

2.2.2 Nazioarteko presentziaren eraldaketa

Globalizazioaren fenomenoa eta berroreka global berriak enpresei eskatzen die etorkizuneko estrategiak diseinatzea, errealitate geoekonomiko global berriari egokituz. Horrek dakar enpresa-eredu global baterantz aurrera egitea; hain zuzen, munduko leku desberdinetan banatutako balio-kate bat ezaugarri izango duena, nazioarteko estrategiak garatuko dituena, eta enpresa bakoitzaren errealitateari egokituta, besteak beste, honako elementu hauek kontuan izango dituena:

- Mundu-mailako eta tokian tokira egokitutako estrategia bat. Enpresek jarduerak garatzen dituzten eremu lehiakor globala beharrezko ikuspegia da. Hala ere, horrek ezin du ahaztarazi, aldi berean, enpresa batek duen presentzia arau eta jokalari desberdinak behar dituen arlo guztietan. Arlo horiek produktuak eta prozesuak egokitzea eskatzen dute.
- Irekiera eta balioaren sorkuntzakidetza. Gero eta gehiago, suspertzen ari diren herrialdeek herrialde aberatsei eragiten dieten ideiak sortzen dituzte, eta negozio-ereduak aldatzera behartzen dituzte. Enpresa askotarako, gaur egungo erronka da kanpoan duten presentzia baliatzea, era berean, berritzeko gaitasun berriak ikasteko eta eskuratzeko.
- Aliantzak eta lankidetza. Leku gehiagotan egoteko konpetentzia handiagoak eta beharrak eskatzen du enpresek, batez ere txikiek, askotariko aliantzak garatzea, beren barne-gaitasunak osatze eta indartze aldera.
- Gaitasunen eta talentuen mistifikazioa**.** Beste herrialde eta eskualde batzuetan epe luzean egoteak eskatuko du beste latitude batzuetako pertsonak txertatzea. Horrek eskatuko du, kasu askotan, gure enpresen eta profesionalen kultura eta jokabideak aldatzea, maila guztietan.

Mundu-mailan lehiatu ahal izateko eskaeratzat har daiteke teknikoki sendoak, balioaniztunak eta inguru desberdinetan lan egiteko gaitasun handikoak diren pertsonak izatea. Horregatik, enpresek profesionalak hainbat lekutan prestatzea beharko dute, eta beren ezagutza eta esperientzia helaraztea beste kultura batzuetako pertsonei. Euskal lanbide-heziketak enpresen aliatua izan behar du beren nazioarteko-prozesuetan, giza kapitalaren beharrezko gaitasunak garatzen lagunduz eta babestuz.

2.2.3 Enpresa-ereduaren eraldaketa

Krisiaren ondoren sortuko den enpresa-ereduari buruz zenbait zalantza egon arren, badago nolabaiteko adostasuna edozein delarik ere oso desberdina izango dela esateko.

Nazioarteko egora lehiakorrean gertatzen ari diren aldaketek gogoeta egitea eragiten ari dira enpresetan garapen ekonomikoko eta giza garapeneko ereduari buruz. Gizarte garatuetan, eta gero eta gehiago garabidean dauden gizarteetan, funtsezkoa da harmonizatu ahal izatea hazkuntza jarraitua, gizarte-kohesioko eskemetan sakontzea, ingurumena zaintzea, globalizazioaren eta tokiko nortasunaren arteko orekari eustea eta mundu hobe baterako belaunaldien arteko konpromisoa hartzea.

Testuinguru honetan, enpresa da tresna eraldatzaile nagusietako bat. Eragile egituratzailea da eta honako prozesu hauek egituratzen ditu, besteak beste: aberastasuna sortzekoa, ikerketaren eta garapenaren zati esanguratsua dinamizatzekoa, pertsonak gizarteratzekoa eta abar.

Planteamendu hori "Pertsonen Komunitatea" gisa jasota dago enpresaren kontzeptuan, eta oinarrizko hainbat ezaugarri ditu:

- Enpresa osatzen duten kide guztien arteko partaidetzaren eta elkarrizketaren kontzeptuan sakontzea.
- Balioetan oinarritutako kultura garatzea; hauek bultzatuko dituena, besteak beste: elkartasuna, belaunaldien arteko konpromisoa, erantzukizuna, ahalegina lanean eta baliabideen erabilera eraginkorra.
- Sormena, esperimentazio etengabea, berrikuntza, ekintzailetza eta abar faboratzen dituen lan-eremuak sortzea; pertsonen hazkundea eta horiek erakundeari egindako ekarpenak errazten dituena, zerikusia duen eragile-sare gero eta handiagoarekin etengabe harremanetan egonez.
- Enpresa dagoen lekuko inguruarekin harremanetan egoteko mekanismoak sortzea; bere konpromisoa berresteko lurraldearen garapenarekin enpresa-proiektu jarraitua abian jartzearen bidez. Halaber, produktu eta zerbitzu erabilgarriak eta etikoak hornitzea eta ekarpenak egitea.

- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzen duen erakunde-kultura baterantz aurrera egiteko konpromisoa, sexuagatik diskriminatzearen aurka egiteko beharrezkoak diren mekanismoak bermatzen dituena.

Lanbide-heziketan landu behar da "Pertsonen Komunitatea" gisako enpresa-kontzeptua aurrerapen-eredutzat, epe luzean lehiakorrak izango diren erakundeen garapenerako eta dauden lekuko pertsonekin eta lurraldearekin konpromisoak izango dutenak. Horretarako, balioak landu behar dira oinarritik, profesional etikoak eta giza garapenarekin eta garapen jasangarriarekin konpromisoa dutenak garatzeko.

2.2.4 Pertsonen enplegagarritasunaren eraldaketa

Berriki Europako Batzordeak Cedefop erakundearen bidez aurkeztutako azterketa batek adierazi du 2020. urterako lanean ariko den Europako biztanleria aktiboaren ehuneko 15 bakarrik izan ahal izango dela ez-kualifikatua. Datu hori Euskadira lekualdatzen badugu eta gaur egungo gure produkzio-ehuna eta haren etorkizuneko garapena aztertzen baditugu, kalkula dezakegu gure kasuan lanean ari den biztanleria aktibo ez kualifikatuak ezingo duela inola gainditu ehuneko hamarra.

Gainera, arestian aztertutako aldaketa ekonomikoek, sozialek eta produkziokoek eskatuko dute enplegurako beharrezkoa den kualifikazioa eraldatzea. Enpresek profil profesional berriak eskatzen dituzte, ezaugarri hauek dituztenak: kualifikazioa handia, moldagarritasuna eta espezializazio-maila handia izatea, konpetentzia globalak planteatzen dituen premiei erantzun diezaieketenak. Horrek guztiak berarekin dakartza gaitasun-eskakizun berriak eta, batez ere, ezegonkortasuna eta epe ertainean eta luzean beharko diren gaitasunei buruzko ziurgabetasuna.

Testuinguru honetan, pertsonen enplegagarritasuna hobetzeak epe motzeko nahiz epe luzeko ikuspegiarekin, estrategia eta mekanismo berriak baliatzea eragingo du, hala nola hauek:

- Gaitasunak aitortzeko tresna berriak, tartean dauden sail guztien artean koordinatuta.
- Bizitza osoan prestakuntza- eta ikaskuntza-bideak egituratzeko eta kudeatzeko beharra, hezkuntza bizitzako etapa guztietan kontuan hartuz eta ez soilik ekintza formalizatu gisa. Halaber, aintzat hartzea prestakuntzaren eta emakumeen eta gizonen enpleguaren arloko sarbidean dauden aldeak.
- Prestakuntzari eskainitako orduak areagotzea, gero eta konplexuagoak diren arloek eskatzen duten espezializazio-maila handia lortzeko modu bakartzat.
- Informazioaren eta Ezagutzen Teknologiekin lotutako gaitasunak eguneratzeko etengabeko premia.
- Enpresen eskaera gero eta handiagoa hizkuntzak menderatzeko, enpresek merkatu globalean nahitaez bideratu behar duten ekonomian.
- "Aukera-sektoreen" arloko prestakuntzan inbertitzea, kualifikazio-maila handiko eta betetzeko zailak diren profil profesionalak behar dituztenak.
- Baterako ahalegina, industria-arloko sektore estrategikoenetara sartzen diren emakumeen ehunekoa areagotzeko.

Laburbilduz, gaur egungo ingurune lehiakorrera egokitzen den prestakuntza daukaten langileen eskaerak exijitzen du aurreko eskemak haustea eta "lanpostura" bideratutako prestakuntza-eredu batetik "arlo profesionala" ardatz duen beste batera igarotzea. Paradigma-aldaketa horrek pertsona erdigunean jartzen du, gaitasun tekniko, pertsonal eta sozialak eskuratzea eta finkatzea sustatzen du, eta beharrezkoak diren balioaniztasuna eta funtzionalitatea bermatzen ditu.

Hortaz, enpresen lehiakortasunerako eta pertsonen enplegagarritasunerako erronka handi bati egin behar diogu aurre, eta are garrantzitsuagoa da hori gaur egungoa bezalako langabezia-tasa altuen une batean. Horregatik guztiagatik, hezkuntzako eta lanbide-heziketako politiken eta enplegu-politiken, eta garapen ekonomikoko politiken arteko harremana gero eta garrantzitsuagoa da.

2.3 ...eta, beraz, Lanbide Heziketako Euskal Sistema eraldatzea eskatzen duena

Ezagutza erakundeen eta lurraldeen baliabide estrategiko nagusi bilakatu da, bai hazkunde ekonomikoaren, lehiakortasunaren eta berrikuntzaren ikuspuntutik, bai enpleguaren, gizarte-kohesioaren eta aukera-berdintasunaren ikuspuntutik. Ezagutzaren gizartean trebetasun garrantzitsuena bilakatu da ikastea eta lanbide-heziketak funtsezko eginkizuna dauka arlo horretan, batik bat industrian.

Euskadin, lanbide-heziketak sistema bat garatu du, gure ehunaren eta gizartearen premiei bermeekin eta eraginkortasunez erantzun diena. Horrela, pertsonen enplegagarritasuna nahiz enpresen lehiakortasuna hobetzeko sistema nagusi gisa finkatu da.

Hala ere, bizitzen ari garen aldaketa-uneak eta horrek enpresek lehiatzeko moduan duen eraginak beharrezko bihurtzen dute lanbide-heziketa aldatzea eta esparru berri baterantz bideratzea, hain zuzen, lortutako emaitzak finkatuko dituen eta gure enpresen lehiakortasunari bermeekin aurre egitea ahalbidetuko digun esparrurantz. Badirudi etorkizunak zeren alde egiten duen. Hori ikusita, lanbide-heziketa desberdina diseinatu behar dugu, eta garapen-aukera berriak, erantzukizun berriak eta helburu berriak aztertu; hain zuzen, askotariko premiak asetzea eta aldaketa-egoerak oso azkar onartzea ahalbidetuko digutenak. Horretarako, aurrerapenez, malgutasunez eta eraginkortasunez lan egingo dugu, etengabeko berrikuntzaren eta bikaintasunaren bidearen bidez. Sistema horrek, bestalde, eginkizun garrantzitsua izan behar du gizarte-kohesioaren arloan, eta ikasle ahulenen partaidetza faboratu behar du.

Sistema osoa birpentsatzeko unea da, eta eredu berri bat diseinatzeko, planifikatzeko eta ezartzeko unea. Sistema berria aurrekoak baino handiagoa eta ausartagoa izan beharko da eta Euskadiko lanbide-heziketa munduko lanbide-heziketako buruan kokatu beharko du behin betiko.

Eta eraldaketa-prozesu horretan, ikastegiek protagonismoa handiagoa hartu behar dute, ahal bada, sistemaren ardatz nagusi gisa. Ikastegiek bultzatu behar dute aldaketa: batetik, barnerantz, barneko egiturak eta kudeaketa-ereduak eraldatuz, eta, bestetik, kanporantz, prestakuntzako, berrikuntzako eta ekintzailetzako jarduerak garatzen dituzten modua eraldatuz eta nazioartera irekitzean aurrera eginez.

2.3.1 Heziketaren eraldaketa

Aurreko kapituluan ikusi dugun moduan, ingurune lehiakorreko aldaketek eskatu dute gure produkzio-ereduak eraldatzea eta balio gehiago txertatzea lanbide-heziketari bere osotasunean. Planteamendu horrek profil berri bat eskatzen du langileentzat; hain zuzen, gaitasunen hobekuntza argia egiaztatuko duena, eta ez soilik gaitasun teknikoena, baita oinarrizko eta zeharkakoena ere: ekimena, erantzukizuna, konpromisoa, autonomia, taldeko lana, analisi-gaitasuna, ezagutzaren transmisioa eta erabakitzeko gaitasuna.

Lanbide-heziketak enpresen funtsezko aliatua izan behar du profil profesional berri horien garapenean, ikasleen kualifikazioa eta espezializazioa hobetzen lan eginez. Are gehiago kontuan hartzen badugu Cedefop Lanbide Heziketaren Garapenerako Europako Zentroak zehaztutako ereduari dagokionez desadostasunak antzeman daitezkeen kualifikazio-egitura daukagula Euskadin (ikus hurrengo grafikoa).

Euskadin hirugarren mailako hezkuntza-maila duten pertsona asko ditugu (unibertsitate-gradua edo goi-mailako lanbide-heziketako titulua), eta horrek Europako laugarren eskualdearen postuan kokatzen gaitu EBko 256 eskualdeetan artetik. Datu horrek, ordea, ez du estali behar % 27,5 direla kualifikazio baxuko pertsonak eta Europako bataz bestekoa baino 20 puntu gutxiagoko hezkuntzaren batez bestekoa duten pertsonen maila daukagula. Hurrengo urteetan, erronka izango da kualifikazio baxuko pertsona horiek beren kualifikazioa hobetzen joatea lortzea, eta gutxienez, erdi-mailako tituluak lortu ahal izatea.

Joerak enplegu-eskaeran kualifikazio-mailaren arabera



Iturria: Cedefop

Gainera, prestakuntzaren eraldaketa horrek lagundu behar du langabezia-tasa jaisten, are gehiago une honetan, gazteen artean bereziki gogorra baita. Susperraldi ekonomikoak lanpostuak sortuko ditu, eta egun langabezian dauden pertsona askok duten kualifikazioaren bestelako kualifikazioa eskatuko dute. Horregatik, birkualifikatzeko ahalegin handia egin behar da, eta gure lanbide-heziketaren sistemak protagonista izan behar du.

Labur esanda, lanbide-heziketa eraldatu behar dugu hainbat norabidetan:

- Prestakuntza-eskaintza are gehiago moldatuz gero eta zorrotzagoak diren enpresen eta enpleguaren premietara, eta ikasleen kualifikazioaren eta espezializazio malguaren mailak hobetzea bultzatzea.
- Ikaskuntza-eredu berriak garatuz, zeharkako gaitasunen garapena erraztuko dutenak eta ikasleen garapen pertsonala eta profesionala faboratuko dutenak.
- Gaitasunen garapena eta profesionalak beren lan-arlora bizkor moldatzea azkartuz, heziketa duala alternantzian eredua sendotzearen bidez; hori bereziki garrantzitsua da kualifikazio eta espezializazio handia behar duten lanpostuetan.
- Lanbide Heziketako ikastegietan lan eginez, benetako fabrikazioko tresna, makina eta instalazio konplexuekin. Horiekin Hasierako Lanbide Heziketako ikasleak trebatu ahal izango dira ondoren enpresetan lan eraginkorra egiteko, baita lanbide-heziketako ikastegi horietan etengabeko prestakuntza egiten duten enpresetako langileak ere, egunerokoan egiten duten edo egingo duten lanari egokitutako materialarekin, tresnekin eta makinekin.
- Orientazio-sistema argi, egokitu eta eraginkor bat garatuz, emakumeei nahiz gizonei laguntza profesionala eskaintzea oinarri hartuta, haien lan-egoera edo egoera pertsonala edozein izanda ere.
- Lanbide-heziketan bikaintasun- eta kalitate-maila altuei eutsiz eta arlo berriak, ikuspegi berriak eta metodologia berriak txertatuz, lanbide-heziketako sistemak jauzi kualitatibo bat egitea eragingo dutenak, baita etengabeko hobekuntzari dagozkion alderdietan ere.
- Lanbide-aukera guztiak eta aukera horiek gauzatzea ahalbidetuko dituen prestakuntza jasotzeko gizonen eta emakumeen arteko aukera-berdintasun eraginkorra sustatuz.

Nondik abiatuko gara?

Nazioartean aitortutako lanbide-heziketako sistema bat daukagu, eta Euskadiren lehiakortasunean giltzarria izan da. Hurrengo grafikoan, eskualdeen lehiakortasuna erakusten da hezkuntzaren arabera (lanbide-heziketa baitan dago). Irudian ikus daitekeen moduan, Madrilekin batera, Euskadi da estatuan puntuazio handiena duen eskualde bakarra, eta punta-puntako beste eskualde batzuen parean dago, hala nola finlandiarrekin, suediarrekin, danimarkarrekin edo britainiarrekin.

Eskualdeen lehiakortasuna hezkuntzaren eta lanbide-heziketaren arabera



Iturria: Mind the gap: Education Inequality Across EU Regions, Dimitri Ballas et al.

Duela 20 urte baino gehiagotik sistema baten eraginkortasunaren eta ondo egitearen isla besterik ez da emaitza; eta, gaur egun lanbide-heziketako euskal sistema bat izatea ahalbidetu digu horrek, hain zuzen honelakoa:

…Integratua. EAEn pertsonen kualifikazio-premiak asetzera bideratuta egotea inplikatzen du horrek, hasierako prestakuntzatik, etengabeko prestakuntzatik eta okupazio-prestakuntzatik (enplegurako lanbide-heziketaren baitan). Sistema hori bestelakoa da beste autonomia-erkidego batzuetakoekin alderatuta; irakasleei eta ikastegiei eguneratuta eta enpresen premietatik hurbil egoteko aukera ematen die.

…Malgua. Ikasleen eta enpresen premia askotarikoei eta aldakorrei erantzun azkarra ematea ahalbidetzen du. Malgutasun hori prestakuntza-zikloetara sartzeko aukera desberdinetan erakusten da (sarbide-proba, eskaintza partzialak, urrutiko irakaskuntza...), baita prestakuntza-eskaintzan ere.

…Teknikoki espezializatua. Euskal lanbide-heziketak zerbitzuekin lotutako lanbide asko eskaintzen dituen arren, 2013an matrikulatutako ikasleen % 64k guztira, industriarako zerbitzuetarako bokazio argia dauka. Industriak gure ekonomian daukan pisu handiak eragin du ikasleak industria-arloko lanbide-familietan espezializatzea; hori frogatzen du lanbide-heziketako ikasleen % 32 fabrikazio-sektorearekin lotutako lanbide-familiaren bat ikasten aritzeak. Ehuneko horri gehitu beharko litzaizkioke industria-jardueratik zuzenean eratorritako zerbitzuak.

Lanbide-heziketako beste aukera batzuen artean, pisu handia dute fabrikazio mekanikoaren eta elektrizitatea eta elektronikaren arloek. Espezializazio hori OCDE erakundeak aitortu du, eta azpimarratu du lanbide-heziketako sistemak daukan koordinazioa eta lerrokatzea euskal industriaren

premiekin. Nolanahi ere, ahalegina egin behar da industria-arloko lanbide-familietan trebatzen diren emakumeen kopurua areagotzeko (egun, gizonak baino askoz ere gutxiago dira), horrek eragin garbia baitu emakumeek industria-ingurunean duten enplegagarritasunean.

…Enpresan presentzia handia duena. Lanbide-heziketako euskal sistemak apustu garbia egingo du alternantzia-erregimeneko prestakuntza dualaren alde. Aldez aurretik esperientzia badu ere, 2012-2013 ikasturtean jarri da abian ikasleek ikasketak ikastegi eta enpresa batean artean alternantzia-erregimenean egiteko aukera ematen duen programa. Programa hasiberria da oraindik eta 14/15 ikasturtean 595 bekadunek eta hasierako bekadunek eta 534 enpresak parte hartu dute, batik bat goi-mailako ikasleek.

…Kalitatearekin eta bikaintasunarekin konpromisoa duena. 9 ikastegi ziurtatuta daude 500 EFQM punturekin; 51 ikastegi, 400 EFQM punturekin; 55 ikastegi, ISO 9000 ziurtagiriarekin; 21 ikastegi, ISO 14000 ziurtagiriarekin; 6 ikastegi, ISO 18000 ziurtagiriarekin, eta 13 ikastegi, Investors in People ziurtagiriarekin.

…Eta berritzailea. Prestakuntzan etengabe berritzeko ezinegona dauka, ikaskuntza-sistema berriak garatuz eta esperimentatuz, eta ikastegietako irakasleei garrantzia emanez. Irakasleen gaitasun-maila eta konpromisoa erabakigarriak dira sistemak arrakasta izateko.

2.3.2 Berrikuntzaren eraldaketa

Lanbide-heziketako euskal ikastegien sarearen kapilaritateak lana errazten die ETEetarako hurbiltasun-eragile gisa, eta berrikuntzaren katalizatzailearen lan hori eraginkortasunez egitea ahalbidetu du. Ikastegiek, enpresekin lankidetzan aritzeko dinamikan, berrikuntzarako laguntza-zerbitzuak eskaintzen dituzte, enpresen arazo edo erronka tekniko-teknologikoei erantzuna ematera bideratuta, baina, halaber, ikaskuntza-eredu berriak baliatzen dituzte ikasleentzat eta ikastegietan kudeatzeko eta antolatzeko modu berriak erabiltzen dituzte.

Etorkizunean lanbide-heziketako ikastegien eta enpresen arteko lankidetza handiagoa egin beharko da berrikuntza-proiektuetan. Proiektuek konplexutasun tekniko gero eta handiagoa izango dute eta jakintza-arlo desberdinen arteko konbinazioa beharko dute.

Eta enpresekin lankidetzan aritzeko helburu horretan, lortu behar dugu enpresak Lanbide Heziketaren Sailburuordetzaren asmora gehitzea, lanbide-heziketako sektore estrategiko eta berritzaileenetan emakumeen kopurua areagotzea lortzeko.

Ikastegiek etorkizunerako duten erronka beren berrikuntza-sistemak bideratzea da aukera berriak sortzera eta enplegua sortze erraztera. Horretarako, industriaren premiei aurre hartzeko gai izan behar dugu, produktu, produkzio-prozesu edo suspertzen ari diren sektoretan jarduera berriak sortzeko aukerak modu proaktiboan identifikatzeko gai izanez, enpresen lehiakortasuna eta ikasleen enplegagarritasuna hobetzea ekarriko dutenak.

Helburu horretan aurrera egiteko, ingurune estrategikoak bultzatuko ditugu, ikastegien eta enpresen arteko sareak sortuko diren espazio gisa, berrikuntza aplikatuko proiektuen garapenean aitzinatzeko. Gainera, ahal izanez gero, hori egingo dugun arloetan arlo horiei buruzko ezagutza-sarea egongo da dagoeneko, baita enpresen premia argia ere.

Are gehiago, ezagutza xehaturik ez dagoen eta argi eta garbi zehaztutako sektorerik ez dagoen baina etorkizunean asko eboluzionatu dezaketen espezializazio-arloak garatzea bultzatu behar dugu. Aitzindariak izan behar dugu etorkizuneko aukerak garatzen, ETEei erraztuz suspertzen ari diren sektoreetara eta teknologia aurreratuetara sartzea.

Eta eraldaketa-prozesu honetan, Lanbide Heziketako Sailburuordetza lankidetzan arituko da Ekonomia Garapen eta Lehiakortasuna Sailarekin eta Gobernuko espezializazio adimendunaren estrategiarekin koordinatuko da; horrela, beren lehentasunekin bat eginda egoteko eta arlo berberetan ahaleginak bateratzeko.

2.3.3 Ekintzailetzaren eraldaketa

Lanbide-heziketako euskal sistema lanean ari da ekintzailetzan bi helburu handi lortzeko: espiritu ekintzailea bultzatzea eta enpresak sortzea lanbide-heziketako ikastegien barnean.

Kultura ekintzailea bultzatzeko programan hauek parte hartzen dute gaur egun: 42 ikastegik, 70 irakaslek eta 1.500 ikaslek baino gehiagok, eta horiek 150 enpresa birtual inguru sortzen dituzte urtero. Datu horiek islatzen dute ikastegiek duten konpromisoa lanbide-heziketako ikasleek ekintzailetza-balioak sustatzeko.

Baina, gainera, 2000. urteaz geroztik, lanbide-heziketak programa espezifikoa dauka enpresak sortzeko lanbide-heziketako ikastegietan. Programa horrek azken 10 urteetan 452 enpresa sortzea sustatu du, eta horien % 80 martxan daude oraindik.

Ekintzailetza euskal lanbide-heziketaren errealitate bat dela baieztatu dezakegun arren, beharrezkoa da ahaleginak indartzea hazkuntza-aukera handiena duten enpresa-proiektu berritzaileak identifikatzeko eta babesteko; hain zuzen, industria-arlora lotuta daudenak eta Gobernuak abian jarritako espezializazio adimentsuaren estrategiatik sortutako sektore berriekin lerrokatuta daudenak. Gure erronkak izan behar du epe ertaineko eta luzeko proiektu aurreratuak eta jasangarriak sor daitezen faboratzea.

2.3.4 Nazioartekotzearen eraldaketa

Euskal lanbide-heziketak ikasleen truke-programetan parte hartzen du Europako hainbat herrialderekin Europako Batzordeak finantzatutako Erasmus+ programen bidez. Eskema horrek bide ematen die gure ikasleei beste errealitate batzuk ikusteko, eta ondoren beren ibilbide profesionala garatzen duten enpresara lekualdatzen dute hori.

Gainera, irakasleak atzerrira joateko mugikortasun-programa bat dago, beste herrialde batzuetako lanbide-heziketako jardun onenak zuzenean beha ditzaten. Programa hori Europako Batzordeak finantzatuta dago eta Sareko irakasleei aukera ematen die munduko beste ikastegi batzuk bisitatzeko.

Etorkizunean, aurreko paragrafoetan adierazitakoaz gain, lanbide-heziketak jauzi egin behar du bere nazioartekotzearen ikuskeran. Batetik, nazioartekotutako euskal enpresari lagundu behar dio, dagoen lekuan dagoela ere. Enpresa horien lehiakortasuna babesteko gai izan behar dugu, behar duten prestakuntza eskainiz, produkzio-zentroak non dituzten kontuan hartu gabe. Horretarako, giro desberdinetan lan egiteko gai diren ikasleak eta irakasleak izan behar ditugu, eta, gainera, xede diren herrialdetako gizarte- eta produkzio-errealitateak ezagutu behar ditugu, baita irakasleen eta ikasleen mugikortasuna are gehiago erraztu ere.

Bestetik, lanbide-heziketako euskal sarea beste herrialde batzuetako ikasleei ireki behar zaie. Euskadi talentudun pertsonen jomuga bilakatu behar dugu, lanbide-heziketako gure sistema garatzen eta aberasten laguntze aldera. Gainera, euskal lanbide-heziketak Euskadiko industriako eta beste sektore batzuetako bikaintasuna nabarmentzen laguntzeko modu bat izan behar du atzerrian. Tresna bat gehiago izan behar du marka-herrialde baten garapenean, enpresei beren lehiakortasuna hobetzeko aukera emateko beste herrialde batzuei dagokienez, lanbide-heziketako bikaintasunetik abiatuta.

2.3.5. Lanbide-heziketako zentroen sarearen eraldaketa

Euskadin lanbide-heziketa garatu duen indargune handienetako bat lanbide-heziketako zentroek urteetan zehar egindako lana izan da. Sareko lana egin dute, eraginkorra, oparoa eta oso emankorra. Inguruneko premia aldakorretara egokitzen jakin du, eta pertsonen, irakasleen eta zentroetako langileen talde oso gaitu eta konprometitu batean oinarritzen da.

Baina lanbide-heziketako prestakuntza, berrikuntza, ekintzailetza eta nazioartekotzea eraldatu nahi baditugu, lanbide-heziketako zentroak ere eraldatu beharko ditugu; hain zuzen, horiek izango dira aldaketaren benetako egileak.

Sareko lana indartzeko unea da orain, lanbide-heziketako zentroen sare integratua sortuz; proiektu berrietan sorkuntza sustatzeko unea, jarduera berritzaile berriak garatzeko unea eta enpresei irmoki

laguntzeko unea. Ahalegina egin behar dugu gure ikastegiak erakunde bizkor, bizi, dinamiko eta sortzaile bilakatzeko; hain zuzen, ikasi, irakatsi eta partekatu egiten duen erakunde-mota, ideia berriak ematen dituena, berrikuntza bere kudeaketako nukleo-elementu gisa hartzen duena eta etorkizuneko proiektu ilusionagarri baten parte sentitzen dena.

Horregatik, zentroek autonomia handiagoa behar dute beren antolakuntzan eta funtzionamenduan, beren ingurunearekin oso lotuta dauden erakunde bihurtzeko, aldaketei eta etorkizuneko erronkei dagokienez azkar erreakzionatzeko gai. Ikastegi horiek, era berean, konexio handiagoa ezarri behar dute Unibertsitatearekin, kualifikazio-maila handiagoak eskuratzeko eta konplexutasun handiko produkzio-sektoreetako premietara egokituago dauden pertsonak prestatzea lortzeko.

Baina, gainera, zentroek kudeaketa aurreratuko eredu berriak garatu behar dituzte, adimen lehiakorra garatzea erraztuko dutenak, errutina sortzaileak garatzea sustatuko duenak eta pentsamendu eraikitzaile baten eredurantz eboluzionatuko dutenak.

Lanbide-heziketako zentroak adimen estrategikoko eta ezagutzako unitate bilakatzea nahi dugu, prestakuntza-eskaintza espezifiko eta espezializatu batean pixkanaka kontzentratzeko joera izanez, eta, aldi berean, beste arlo batzuetako beren ezagutzak osatuko dituzten sareetan parte hartuz.

Laburbilduz, lanbide-heziketako zentroen eredu baterantz aurrera egin nahi dugu pixkanaka, balio-sorkuntzaren, berrikuntzaren, hobekuntzaren, estrategiaren eta balioen arloak garatuko dituena. Eredu berriak honako ezaugarri hauek izango ditu besteak beste:

- Autonomia, bizkortasuna eta malgutasuna eta erantzukizun partekatuko zentzua; hortaz, bestelako antolaketa- eta funtzionamendu-eredu berri bat garatu behar da.
- Sareko lana; ingurune estrategiko desberdinetan balioaren sorkuntza bilatuz eta partekatutako lanean eta dibertsitatean oinarrituz. Uste dugu lankidetza dela lanbide-heziketan ezarri nahi dugun prozesu berritzaileen oinarria.
- Ikuspegi estrategikoa; zer garen eta nora goazen jakitea, eta ingurune desberdinetako egungo eta etorkizuneko erronkak antzemateko gaitasuna izatea.
- Sormena; ideiak sortzeko eta garatzeko gaitasuna, aldaketak modu naturalean berarekin dakartzan erronkak eta arriskuak onartuz.
- Prospektibarako, teknologia-zaintzarako eta ezagutzaren kudeaketarako gaitasuna: horrek berarekin dakar ikastegiek gaitasuna izatea beren inguruko errealitatea behatzeko eta ulertzeko eta behar duenari eta behar dunenean ezagutza helarazteko. Suposatzen du ikastegiak gai izatea etengabe ikasteko eta espezializatutako eta ingurura egokitutako ezagutza garatzeko.
- Pentsamendu eraikitzailea, proposamenak sortzeko, helburuak ezartzeko, lehentasunak ebaluatzeko eta alternatibak sortzeko bide gisa. Pentsamenduaren *iraultza* horren oinarri dira informazio-ikuspegi bat, ikuspegi intuitibo bat, ikuspegi eraikitzaile bat, ikuspegi sortzaile bat eta ikuspegi antolatzaile bat izateko aukera ematen duten gaitasunak.
- Erantzukizuna eta konpromisoa inguruarekin eta gizarte-errealitatearekin; gizarte-kohesioa eta -ongizatea bultzatzen lagunduz, eta arlo hauek bultzatuz: emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna, dibertsitatea balio gisa, gizarteratzea, ingurumenarekiko errespetua, etab.

Lanbide-heziketako euskal ereduaren eraldaketa

	Eredu batetik...	*Beste batera...*
1. Heziketa integratua	*"...gaitasun teknikoak eta zeharkako gaitasunak hartzean arreta jarrita duena"*	*"...gainera, oso kualifikatutako profesionalak sortzen dituena, espezializazio-maila handiarekin eta aldaketara gehiago egokituta"*
2. Berrikuntza aplikatua	*"...enpresen berrikuntza-premiei erantzuteko erreaktiboa"*	*"...proaktiboa, premiei aurre hartzeko gai dena"*
3. Ekintzailetza aktiboa	*"...ekintzailetzaren sustapenean eta enpresen sorkuntzaren babesean oinarritua"*	*"...sektore estrategiko berrietan enpresak sortzeari bideratuta, gainera"*
4. Nazioartekotzea	*"...ikasleak eta irakasleak atzerrian egotean oinarritua"*	*"...gainera, gure enpresei presentzia globalean laguntzera bideratua"*
5. Lanbide Heziketako Zentroen Sare Espezializatua	*"...sareko lanean oinarritua ikastegi eraginkorrekin eta konprometituekin"*	*"...gainera, sare autonomoen nodoetan lan egiten duten ezagutza-unitatez osatua"*

2.3.6 Lanbide Heziketako Euskal Kontseilua

IV. Euskal Plan honetan proposatzen den Lanbide Heziketaren eraldaketak lankidetza-esparru berria behar du bertan parte hartzen duten eragileen artean. Horregatik, Lanbide Heziketako Euskal Kontseilua eraldatu egin beharko da eta lanbide-heziketa bere osotasunean osatzen duten politikak eztabaidatzen, adosten eta hitzartzen diren erakunde berri bilakatu beharko du. Eraldaketa hori Euskadiko Lanbide Heziketari buruzko Legean jaso beharko da.

2.3.7 Lanbide Heziketako Sailburuordetzaren laguntza-erakundeak

Lanbide Heziketako Sailburuordetzak organikoki eta funtzionalki bere mende dituen hiru erakunde ditu: Kualifikazioen eta Lanbide Heziketaren Euskal Institutua, Lanbide Heziketako Kalitatea eta Gaitasuna Ebaluatzeko Euskal Agentzia eta Lanbide Heziketarako eta Etengabeko Ikaskuntzarako Berrikuntza Zentroa (TKNIKA). Erakunde horiek abian jartzeak, eskuratutako esperientziak eta IV. Euskal Plan honetan zehaztutako estrategietatik eratorritako helburu berriek komenigarri egiten dute erakunde horiek sendotzea eta eraldatzea. Erakunde horiek eskuratutako emaitzak finkatu eta beste arlo batzuetan aurrera egitea bermatu ahal izateko. Hori guztia erantzukizun, helburu eta antolakuntza-eredu berriekin, irekiekin eta malguekin, erronka berriak aurrerapenez, malgutasunez eta eraginkortasunez onartzea ahalbidetuko dietenak, etengabeko berrikuntzaren eta bikaintasunerako bidearen bidez.

III. multzoa: Lanbide Heziketako IV. Euskal Plana

3.1. Planaren oinarriak

Lanbide Heziketako Planak hainbat printzipiotan oinarrituko du bere jarduna, honako hauetan, hain zuzen:

- Lanbide-heziketaren ikuspuntu integratua. Lanbide heziketa sistema bakartzat hartzen dugu, bizitza osoko ikaskuntzaren ideiatik abiatuta, Euskadiko biztanleen ibilbide profesional osoko kualifikazioko eta birkualifikazioko beharrak asetzeko gai izango dena, horien lan-egoera edozein delarik ere, modu koordinatuan eta eraginkorrean.
- Pertsona funtsezko helburutzat: pertsonak euren gizartean hiritar aktibo gisa garatzea garrantzitsua dela uste dugu, eta, beraz, lanbide-heziketa gaitasun profesionalak eskuratzera eta finkatzera bideratzeaz gain, gaitasun pertsonalak eta sozialak eskuratzera ere bideratuko da.
- Ezagutzaren eta berrikuntzaren aldeko apustua: Lan egingo dugu gure ingurunea eta suspertzen ari diren joerak ezagutzeko, enpresek eta pertsonek zer behar duten jakiteko, ezagutza aztertzeko eta behar duenari behar duenean helarazteko gai izateko. Enpresen eta pertsonen premiei aurre hartu nahi diegu, eta, horretarako, prospektibako, teknologia-zaintzako eta ezagutzaren kudeaketako gaitasun eta prozesu indartsuak garatu behar ditugu.
- Jasangarritasuna epe luzean eta inpaktua epe laburrean: Epe luzean gure ekonomia-ehunaren lehiakortasunean aurrera egitea babestu nahi dugu, etengabeko hobekuntza jasangarrirako oinarrizko bide gisa. Horregatik, etorkizunari buruz pentsatzen dugu eta gure produkzio-sektoreen eskaerei aurre hartu nahi diegu. Gainera, epe motzean plan honek gure enpresen eskaerei erantzuten lagundu nahi du, pertsonen enplegagarritasuna hobetuz prestakuntza egokituago eta espezializatuago baten bidez.
- Enpresekiko hurbiltasuna: Gure produkzio-sistemarekin harreman estuak garatu nahi ditugu, enpresa-ehunarekin elkarlanean arituz, balioa elkarrekin sortzeko.
- Gizarte-erantzukizuna eta konpromisoa ingurunearekin: Neurri eraginkorrak ezarri nahi ditugu hazkuntza eta garapena emakumeen eta gizonen arteko dibertsitatean eta zuzentasunean gertatzen dela bermatzeko, eta, halaber, gizarte-kohesioa kontuan hartuz gertatzen dela, arreta berezia jarrita gizarte-egoera ahulean dauden pertsonei.
- Esperimentazioa. Ziur gaude gure sistema eraldatzeko beharraz, eta mailaz maila egin nahi dugu hori, eredu eta metodologia berriak esperimentatuz, behar izanez gero horiek egokituz eta sisteman pixkanaka orokortuz.
- Ahaleginak fokalizatzea: Alde batetik, baliabide publikoen erabileraren efizientzia handitzeko beharra ikusita, eta bestetik, egoera ekonomikoaren ondorioz eta herrialdearen tamaina txikiagatik dauzkagun baliabide mugatuak kontuan hartuta, garbi ikusten dugu politikak eta ekintzak fokatu behar direla inpaktu handiena eragin dezaketen arloetan, eta ondorioak etengabe ebaluatu behar direla, haien arabera jokatzeko.
- Koordinazioa eta lankidetza: Indartu beharreko bideak dira erakundeen arteko lankidetza eta lankidetza publiko-pribatua. Lankidetza-formula tradizionaletako zenbait berrasmatu behar dira, helburuak hobeto lerrokatzeko eta baliabideak eraginkortasun handiagoz erabiltzeko.

Gainera, jakin badakigu prestakuntza hazkunde ekonomikoaz eta enplegu-bilaketaz harago doala. Prestakuntzak zuzentasuna indartzen du, berdintasuna faboratzen du eta gizarte-kohesioa sendotzen du. Hori guztia beharrezkoa da hazkunde eta garapen jasangarria ziurtatzeko eta gizarte justuago baterantz aurrera egiten jarraitzea bermatzeko. Etika, balioak eta konpromisoa dira, beraz, Lanbide Heziketako IV. Euskal Plan honen funtsezko elementuak.

3.2. Planaren metodologia eta eremua

Lanbide Heziketako IV. Euskal Plana Lanbide Heziketako Euskal Kontseiluaren baitan egin da, Lanbide Heziketako Euskadi 2015 Agenda Estrategikoan ezarritako ildoei jarraituz. Hori euskal lanbide-heziketako garapen lehiakorraren arloko giltzarri estrategikoei eta operatiboei buruzko azterketa-, gogoeta- eta egiaztatze-prozesu baten bidez egin da. Lanbide Heziketako IV. Euskal Planaren indarraldia 2016an amaitzen den arren, planak hurrengo bosturtekoaren erronkak ere hartzen ditu kontuan. Ondo dakigu gobernu-plan estrategikoak eraginkorragoak direla zerikusia duten eragile batzuek eta besteek ahalegina egiten dutenean gogoeta eta azterketa konpartituan.

Lanbide-heziketako euskal sistemari eta haren etorkizuneko erronkei buruz egindako diagnostikoaren aurrean, Eusko Jaurlaritzak pertsonen enplegagarritasuna eta enpresen lehiakortasuna bultzatzeko egin dituen apustuak agertzen ditu Lanbide Heziketako IV. Euskal Planak. Bultzada hori lortzeko, gure esku dauden tresna eta baliabide guztien agerraldia egingo da, lehentasunak ezarrita, eta gainerako plan estrategikoekin eta sailetako planekin koordinatuta, baldin eta beste horien ekintzek euskal lanbide-heziketan eragina badute.

Lanbide Heziketako III. Euskal Planaren ebaluazioa Lanbide Heziketako Euskal Kontseiluak egin zuen eta plan honen aurrekoa da. Ebaluazio horretan, funtsezko hainbat gai aipatzen dira, eta Jarraipen Batzordearen ustez kontuan hartzekoak dira. Horiek txertatu dira plan hau egiterakoan:

- Eragile ekonomikoen eta sozialen partaidetza zuzena Planaren garapenean, prestakuntza ekoizpen- eta kudeaketa-moduen bilakaerara egokituta dagoela bermatzeko modu gisa, baita enpresa-ehunaren premien bilakaerara ere.
- Kualifikazioei eta lanbide-heziketari buruzko informazioa gizarteari zuzen helarazten zaiola bermatzeko sistema bat abian jartzea, lanbide-heziketan Informazio eta Orientazio Profesionalen sare baten bidez, lanbide-heziketako eskaintza zabaltzea ahalbidetzen duena informazio-kanal askoren bidez.
- Ikaskuntza ez-formalen eta formalen aitorpen-sistema bat abiarazteko beharra, produkzio-sistemako prestakuntza-beharrei erantzuteko.
- Ebaluazio- eta jarraipen-sistemak sartzea Sailburuordetzak eta lanbide-heziketako zentroek garatutako programetan.

Plana egiteko erabilitako eskema metodologikoa



3.3 Planaren helburuak eta jarduera-ildoak

Lanbide Heziketako Planaren helburu nagusia da Euskadiko pertsona guztien, emakumeen nahiz gizonen, enplegagarritasuna faboratzea, eta, aldi berean, merkatu globalean Euskadiko produkzio-ehunaren lehiakortasuna eta gizarte-kohesioa faboratzea, LHko euskal sistema eraldatuz epe motzean eta luzean enpresen premiei eta pertsonen enplegagarritasuneko eskakizun berriei erantzun egokitua eta bizkorra eman ahal izateko.

5 arlo estrategiko, lehentasunezko 9 helburu eta 20 jarduera-ildo zehaztu ditugu:

Lanbide Heziketako IV. Euskal Planaren arloak, helburuak eta jarduera-ildoak



A. LANBIDE HEZIKETA INTEGRATUA

Lanbide Heziketa integratuaren ardatzean, 3 helburu estrategiko ditugu:

1. helburua: Lanbide-heziketa produkzio-sektoreen egungo eta etorkizuneko premietara eta pertsonen enplegagarritasunera egokitzea, enpresek kualifikazio eta espezializazio gero eta handiagoen arloan dituzten premiei erantzuteko.

Euskadiko lanbide-heziketako zentroek, publikoek nahiz pribatu itunpekoek, urte asko daramatzate hasierako lanbide-heziketaren bidez gazteentzako lanbide-heziketa integratua lantzen. Halaber, gure enpresen giza kapitalaz eta langabeez arduratzen da, enplegurako lanbide-heziketaren bidez.

Euskadiko herritarren giza garapenean funtsezko eragile gisa daukagun eginkizuna are gehiago bultzatzeko erronka daukagu, pertsonen enplegagarritasuna eta enpresen lehiakortasuna hobetzen laguntze aldera. Eta modu integratuan egiten jarraitu nahi dugu hori, nahi duten pertsona guztiek lanbide-heziketarako sarbidea izan dezaten bermatuz berdintasun-baldintzetan. Horretarako, lanbide-heziketa ahal bezain gehien malgutu nahi dugu, prestakuntza-eskaintza eta ikasketa-alternatibak handituz, baita gaitasunak aitortzeko sistemak ere.

Lehiakortasunari ekarpena egiteko, gai izan behar dugu gure enpresa-ehunaren eskaerei azkar erantzuteko eta euren premiei ere aurre hartu behar diegu. Egungo egoeran, lehiakortasunerako funtsezko alderdiak dira azkartasuna, malgutasuna, balio-aniztasuna eta zeharkakotasuna, bereziki zientziaren eta teknologiaren aurrerakuntzak espezializazio-maila handiko profesional berriak azkar garatzea eskatzen duten inguruneetan.

Hori dela-eta, gure ikasleen kualifikazio- eta espezializazio-maila igo behar dugu etengabe, gure prestakuntza-eskaintza birdiseinatuz eta kualifikazioen arloko euskal esparru bat garatuz; hain zuzen, esparru horrek espezializazio-maila handiagoa izan beharko du eta profil profesional berriak garatzea faboratu beharko du.

Halaber, alternantziako prestakuntza dualaren ereduak indartu nahi ditugu, horien iraupena luzatuz eta sisteman horiek orokortuz. Gaitasun teknikoak garatzea eta pertsonak lan-eremuetara egokitzea azkartzeko bidea izango da hori.

Azkenik, euskal lanbide-heziketan orientazio-zerbitzuen eskaintza eta lanbide-garapena hobetuko ditugu, irakasleen, profesionalen, ikasleen eta arlo honetan parte hartzen duten gainerako eragileen arteko partekatze- eta lankidetza-kultura ezarriz. Horretarako, gaur egun aholkularitza- eta orientazio-funtzioak garatzen dituzten profesionalak hartuko ditugu oinarritzat, eta jardunbide egokiak xede izango dituen etengabeko berrikuntzako proiektu bat eta talde bat egiteko, eta jardunbide horiek sustatzen lagunduko dute.

Era berean, orientazio profesionalean 2.0 kultura garatuko dugu, zerbitzuen eraginkortasuna areagotzeko, arlo honetan zerikusia duten profesionalen komunikazioa, partekatzean eta lankidetzan oinarrituta.

Helburu hori lortze aldera, honako jarduera-ildo hauek garatuko ditugu:

1.1 Prestakuntza-eskaintza espezializatuagoa eta lehiakortasun- eta enplegagarritasun-eskakizun berrietara egokitutakoa garatzea.

- Kualifikazio eta espezializazio profesionalen euskal esparru berri bat ezartzea, enpresen espezializazio-premiak aseko dituena, ezagutza eta gaitasun berriak landuta.
- Prestakuntza-eskaintza malgua osatzea, pertsonen beharretara egokitua, eta, horretarako, urrutiko prestakuntzako formulak, zikloen modularizazioa, kreditu metagarriak eta abar txertatzea.
- Lanbide-heziketako sistemaren eta Unibertsitatearen arteko lankidetzan aurrera egitea, ingurune konplexuetarako profil profesional berriak lortzeko.

- Enplegurako prestakuntza espezifikoko ekintzak ezartzea, enplegagarritasun-zailtasun gehien dituzten taldeei bideratuta.
- Gaitasuna indartzea enplegagarritasuna faboratzeko eta bizitza osoan gaitasun profesionala eta ikaskuntza areagotzeko pertsonak motibatzeko tresna gisa.
- "Esperientzien guneak" sortzea, non aktibo ez dauden irakasleek beren ezagutzaren eta esperientziaren ekarpena egin dezaten, ikastegien proiektuetan eta jardueretan parte hartzearen bidez.

1.2 Ikastegietako irakasleen prestakuntza bultzatzea, lanbide-heziketan aldaketa eta eraldaketa bultzatzeko beharrezkoak diren gaitasun eta jokabide berriak garatzea bilatuz

- Irakasleen prestakuntza indartzea, gaitasun eta metodo berriak garatzera bideratuta, gero eta espezializatuagoa eta konplexuagoa den ikaskuntza-ingurune batera egokituta.
- Ikastegietako irakasleek euskal enpresa-errealitatea ezagutzea faboratzen duten jarduerak ezartzea, euren lan egiteko moduetan eta ikasleekin dituzten harremanetan helarazi ahal izateko.
- Lanbide-heziketako irakasleen artean gaitasun berria bultzatzea, Euskadiko lanbide-heziketak dituen erronka berriak bermeekin onartu ahal izateko.

1.3 Prestakuntza duala alternantzian eredua indartzea, gaitasunak garatzea eta arlo profesionaletara egokitzea azkartzeko bide gisa.

- Egungo prestakuntza duala alternantzian ereduaren programak bultzatzea, bereziki faboragarriak diren testuinguruak erabiliz eta gure inguruko familia eta sektore estrategikoetara lotutako ikasleen gaitasunen garapena azkartzea sustatuz.
- Prestakuntza duala alternantzian ereduaren programak zehaztea eta abian jartzea ikerketa-erakundeetan ere (zentro teknologikoak, enpresen I+G sailak).

1.4 Orientazio-eremu berriak garatzea, sistema arin eta eraginkor batekin.

- 2.0 kulturan oinarritutako antolakuntza- eta lan-eredu bat diseinatzea eta bultzatzea, zerbitzuen eraginkortasuna areagotzeko orientazioaren eta lanbide-heziketaren arloan.
- Lanbide-orientazioaren arloan ezagutzaren kudeaketa-eredu bat egitea euskal lanbide-heziketaren osotasunerako.
- Orientazioko gaitasun profesionalen eta jardunbide egokien mapa bat egitea, lanbide-heziketaren arloan.
- Lanbide-orientazioko ereduaren genero-ikuspuntutik azterketa bat egitea, industria-arloko lanbide-heziketara emakumeak erakartzea lortzera bideratuta funtsean.
- Kualifikazioei, lanbide-heziketari eta enpleguari buruzko informazioa gizarteari zuzen helarazten zaiola bermatzeko sistema bat sortzen laguntzea. Sistema horrek LHko eskaintza hainbat informazio-kanalen bidez hedatzea ahalbidetu behar du, informazio eta lanbide-orientazioko sare baten bidez.

1.5 Euskarari arreta berezia eskaintzen dion eredu eleaniztun berri bat ezartzea, eta beste hizkuntza batzuk ikastea bultzatzea etengabe.

- Lanbide-heziketan euskarazko eskaintza areagotzea, D eredua indartuz eta B eredua –elebiduna– martxan jartzeko plangintza eginez, Eusko Jaurlaritzak 2014ko ekainaren 24an argitaratutako Euskararen Agenda Estrategikoa 2013-2016 dokumentuan adierazten den bezala.
- Eredu hirueleduna garatzea, euskarazko lanbide-heziketaren eskaintza indartuz eta hirugarren hizkuntza bat ikastea sustatuz –batez ere ingelesa–. Eredu horrek gure ikasleen enplegagarritasun-aukerak eta lanbide-garapena indartu behar ditu.

- Ingelesezko prestakuntzako talka-planak sustatzea irakasleentzat eta ikasleentzat, B1 eta B2 mailak lortzea ahalbidetzeko, atzerriko fabriketako prestakuntza duten pertsonen premiei azkar erantzun ahal izateko.

1.6 Ikasketak aukeratzean, sexuen arteko ezberdintasun kuantitatiboa murrizteko jarduerak garatzea, sexu-bereizketa handiena dutenei eta laneratzeko aukera handiena dutenei lehentasuna emanez.

- Azterketa diagnostiko bat egitea emakumeen eta gizonen egoerari dagokionez lanbide-heziketan, eta azterketaren emaitzetan oinarrituta, laneratzeko aukera handiena duten ikasketan berdintasuna sustatzen duten jarduerak zehaztuz.
- Lanbide-heziketan sentsibilizatzea eta genero-estereotipoen haustura xede duten kanpainak edota jarduerak (foroak, jardunaldiak) bultzatzea.

<u>2. helburua:</u> Berrikuntza bultzatzea ikaskuntzan, metodologia berriak bultzatuz, eta lehiakortasun- eta enplegagarritasun-premia berriei lotutako gaitasun berriak garatzea erraztuz

Enpresek profesionalak eskatzen dituzte, gaitasun teknikoak menperatzeaz gain, beste gaitasun, trebetasun eta jokabide batzuk dituztenak; hain zuzen, egungo lehiakortasun-inguruneko erronketara egokitzea ahalbidetzen dutenak. Erantzukizuna eta konpromisoa, ekimen pertsonala, ideiak sortzeko gaitasuna, emaitzarako orientazioa, taldeko lana, erabakiak hartzeko gaitasuna... Enplegurako oinarrizko gaitasunak dira horiek, eta lanbide-heziketako sisteman ere garatu behar ditugu. Horretarako, gure ikaskuntza-metodoak eraldatu behar ditugu, horiek egokituz lehiakortasun- eta enplegagarritasun-premia berrietara lotutako gaitasunen garapena bermatzeko moduan.

Eta prozesu horretan, ikastegietako irakasleek eta langileek funtsezko eginkizuna dute aldaketaren dinamizatzaile eta bultzatzaile gisa.

Helburu hori lortze aldera, honako jarduera-ildo hau proposatzen dugu:

2.1 zeharkako gaitasunak garatzea errazten duten ikaskuntza-eredu eta -tresna berriak zehaztea eta ezartzea eta ikaskuntza-sistema berrietara egokitzen den ikasgela-kontzeptu berri bat diseinatzea eta lantzea.

- Ingurunea ahalik eta gehien aprobetxatzea helburu duten eredu metodologiko berriak ikertzea, diseinatzea eta ezartzea, ikaskuntza-eredu berriak hautatuz eta ikuspuntu praktikoak eta kritikoak txertatuz, ikasleek ikaskuntza-prozesuetan paper aktiboa duten testuinguruan.
- Lanbide-heziketan zeharkako gaitasunak garatzeko metodologiei eta tresnei buruzko ikerketa bultzatzea.
- Ikaskuntza-eredu berrietara egokitzen den ikasgela-kontzeptu berri bat diseinatzea.
- Irakasleen lidergo-papera sustatzea, beste jokabide eta eginkizun batzuk faboratzera bideratutako garapen-programa batekin, ikaskuntza aktiboa eta elkarlanekoa bultzatuz.

3. helburua: Euskal lanbide-heziketaren bikaintasun- eta kalitate-mailan aurrera egitea.

Eskuratutako esperientzia handitik abiatuta, hobekuntza-sistema arrunt, arin eta partekatu bat zabaldu nahi dugu. Lanbide-heziketako sistemaren ohiko garapenean sortzen diren mugak antzematean sakondu nahi dugu. Zein diren, nola gertatzen diren eta zer irtenbide har diezaiekegun horiek konpontzeko.

Halaber, ahalegina egingo dugu gure ikasleen emaitzak hobetzeko, beharrezkoak diren prozedura eta prozesuak ezarriz, eta xede horretarako diseinatutako estrategia eta tresna berriekin.

Helburu hori lortze aldera, honako jarduera-ildo hau garatuko dugu:

3.1 Hobekuntza-eredu berriak lantzea, ikastegien garapena eta ikasleen arrakasta-maila hobetzera bideratuta.

- Lanbide-heziketako ikastegien kalitatearen kudeaketa-eredua berrikustea eta eguneratzea, aurrera egiteko eta lanbide-heziketako ikastegietako jarduerak hobetzeko, kudeaketako eta kalitatea hobetzeko sistema arrunt, arin eta partekatu baten bidez.

- Mugak eta zailtasunak identifikatu eta LEAN metodoa prestakuntzara egokitzea, azken finean lanbide-heziketako emaitza akademikoak hobetzeko.

B. BERRIKUNTZA APLIKATUA

"Berrikuntza aplikatua" ardatzaren baitan, honako helburu eta jarduera-ildo hauek proposatzen ditugu:

4. helburua: Euskadiko enpresekin berrikuntza aplikatuko proiektuak babestea eta sustatzea, bereziki ETEekin, lanbide-heziketako ikastegien eta enpresa horien arteko harreman estuaren bidez, Euskadin lehiakortasunerako estrategikotzat jotako arloetan.

Gure produkzio-sektoreek berritu eta aldatu egin behar dute produktu, prozesu eta zerbitzu desberdinak, hobeak eta lehiakorragoak lortzeko. Lanbide-heziketako ikastegiak, enpresekiko duten hurbiltasunagatik, finkatu behar dira funtsezko eragile gisa enpresetan aplikatutako berrikuntza babesteko eta dinamizatzeko, bereziki ETEetan. Horretarako, modu proaktiboan eskaini behar dute beren lankidetza eta teknologia-bitartekari gisa jardun beharko dute, beharrezkoa izanez gero, zientziaren eta teknologiaren euskal sarearen eta enpresen artean.

Helburu horrek, "inguru estrategikoak" sortu behar ditugu, eta horietan elkarrekin lan egingo dugu enpresekin balioa sortzera bideratutako berrikuntza-proiektuetan. Gainera, uste dugu beharrezkoa dela aukera berriei buruz ikertzea, pertsonen enplegagarritasuna eta gure enpresen lehiakortasuna hobetu dezakeen ezagutza sortuz. Horregatik, suspertzen ari diren sektoreei lotutako "espezializazio-arloak" ere garatuko ditugu, eta horietan, ikertu eta esperimentatu egingo dugu, aukera berriak identifikatzeko helburuarekin.

Horretarako, prospektibako, zaintzako, prestakuntzako, kualifikazioko eta enpleguko eredu berri koherentea eta zentzuzkoa zehaztu behar dugu, gure produkzio-sektoreak izaten ari den bilakaerari erantzuna emango diona. Gainera, epe luzera begira, suspertzen ari diren sektoreei eta jarduera-arloei buruzko ezagutza garatzen aurrera egitea ahalbidetu beharko du.

Helburu honetan aurrera egin behar dugu Gobernuko lehentasun estrategikoekin lerrokatuta, gure ahaleginak bideratuz Euskadiko enplegagarritasunerako eta lehiakortasunerako estrategikotzat hartutako sektoreetara. Horregatik, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailarekin, Lanbiderekin eta Ekonomia Garapen eta Lehiakortasun Sailarekin lankidetzan arituko gara, garatzen ari den espezializazio adimenduaren estrategiarekin bat eginda.

Atal honetan, hiru ildo proposatuko ditugu:

4.1 Produkzio-ehunean ingurune estrategikoak garatzea eta horietan enpresak eta lanbide-heziketako ikastegiak elkarlanean aritzea, enpresa-lehiakortasuna eta enpresetan balioa sortzea indartzeko aukera elkarrekin zehazte eta garatze aldera.

- Ingurune estrategiko espezializatuak ezartzea. Horietan, lanbide-heziketako ikastegiak eta enpresak –betez ere ETEak– elkarlanean jardungo dira, balioa sortuz funtsezko prozesu gisa lehiakortasunaren arloan, produkzio-prozesuei eta produktuei aplikatutako berrikuntzaren bidez.
- Berrikuntza-proiektuak garatzea espezializazio-arloetan edo gorantz doazen sektoreetan, ezagutza sortzeko eta transferitzeko eta enpresentzako aukera berrien garapena zuzentzeko azken xedearekin.
- Emakume eta gizonen enplegagarritasunean suspertzen ari diren sektoreen inpaktua aztertzea, eta teknologian aurreratuenak eta trinkoenak diren sektoreetan lan egiten duten emakumeen kopurua bultzatzen duten jarduerak egitea.

4.2. Espezializazio-arloak ezartzea suspertzen ari diren sektoreetan.

- Lanbide-heziketaren partaidetza bultzatzea giza kapitalaren eta berrikuntza aplikatuaren espezializazioaren bidez suspertzen ari diren enpresetan eta, bereziki, ETEetan.
- Lanbide-heziketako ikastegien partaidetza sustatzea inguru konplexuetan lan egiten duten enpresen espezializazio-maila hobetzean, bereziki ETEena.
- Prestaketa- eta espezializazio-maila handiko giza kapital espezifikoen premiekin suspertzen ari diren

sektoreetan lan egiten duten enpresak antzematea eta babestea.
• Ingurune estrategiko espezializatuak ezartzea. Horietan, lanbide-heziketako ikastegiak eta produkzio-ehuna elkarlanean jardungo dira, balioa sortuz funtsezko prozesu gisa lehiakortasunaren arloan, produkzio-prozesuei eta produktuei aplikatutako berrikuntzaren bidez
• Berrikuntza-proiektuak garatzea espezializazio-arloetan edo gorantz doazen sektoreetan, ezagutza sortzeko eta transferitzeko eta enpresentzako aukera berrien garapena zuzentzeko azken xedearekin
• Emakume eta gizonen enplegagarritasunean suspertzen ari diren sektoreen inpaktua aztertzea, eta teknologian aurreratuenak eta trinkoenak diren sektoreetan lan egiten duten emakumeen kopurua bultzatzen duten jarduerak egitea.

4.3 Lanbide-heziketako ikastegietan modu proaktiboan sortutako berrikuntza aplikatuko proiektuen garapena babestea.

• Lanbide-heziketako ikastegien baitan sor litezkeen berrikuntza aplikatuko proiektuak garatzea; gero, sortutako berrikuntzak hedatzeko beharrezkoak diren mekanismo guztiak ezarriz.
• Berrikuntza-sistemaren kapilaritatea hobetzen laguntzea, ikastegien eginkizuna izatea faboratuz ezagutzaren sortzaileen (zientzia, teknologia eta berrikuntza sistema) eta enpresen (teknologia-bitartekaritzat jardun) arteko bitartekari gisa.

4.4 Pentsamendu eta errutina sortzaileak errazten dituzten proiektuak garatzea, ideiak sortzeko askotariko inguruneetan.

• Pentsamendu eta errutina sortzaileak errazten dituzten ekintzak dinamizatzea eta espazioak gaitzea, hain zuzen, askotariko inguruneetan ideia berriak sortzeko bide gisa, bereziki 3D fabrikazio pertsonalizatuari lotuta inguruneetan, gehitze-fabrikazioko teknologiak oinarri hartuta, besteak beste.

C. EKINTZAILETZA AKTIBOA

"Ekintzailetza aktiboa" ardatzaren baitan, honako helburu eta jarduera-ildo hauek proposatzen ditugu:

5. helburua. Ekintzailetza-jarduera indartzea lanbide-heziketan, espiritu ekintzailea are gehiago sustatuz eta enpresa berriak sortzea bultzatuz, bereziki industria-ingurunetan.

Lanbide Heziketako Sailburuordetzan jakin badakigu espiritu ekintzailea bultzatzea garrantzitsua dela, enpresen sorkuntza faboratzeko abiapuntu gisa. Espiritu ekintzailea ezaugarri duen herrialde baten garapenari lagundu nahi diogu, enpresa-kultura, sorkuntza eta berrikuntza sustatuz. Enpresa-espiritua bultzatu behar dugu, eta enpresa-proiektuen sorkuntza eta garapena faboratzen duten ezagutzak, gaitasunak eta jokabideak garatzen lagundu.

Lanbide-heziketako ikastegietan enpresen sorkuntza dinamizatzen jarraitu nahi dugu, eta badakigu jarduera ekonomiko berri bat sortzea oinarrizko estrategia dela gizarte konprometitu eta lehiakor baten bilakaerarako. Hori dela-eta, enpresak sortzea ahalbidetzeaz gain, horiek finkatzen eta hazten lagundu nahi dugu.

Haz daitezkeen proiektuak bultzatzeko xedea daukagu, bereziki industria-arloan sortutakoak eta oinarri teknologiko handiagoa dutenak. Eta, horretarako, bost elementu hartu behar ditugu oinarritzat: ekintzailea, irakasle dinamizatzailea eta talentu-identifikatzailea, lanbide-heziketako ikastegia enpresa berriak inkubatzeko espazio gisa, Tknika zentro ekintzaileen sare bat dinamizatzeko eragile gisa eta Lanbide Heziketako Sailburuordetza (funtsezkoa da erakunde horrek ekintzailetzari ematen dion babesa eta aitorpena).

Hori lortzeko, lana modu koordinatuan egituratuko dugu, ekintzailearen figuraren inguruan beren jarduna ardazten duten eragile eta erakundeekin, eta, halaber, Euskadin ekintzailetza bultatzeko tresna eta plan batzuekin.

Helburu hori betetze aldera, honako jarduera hauek garatuko ditugu:

5.1 Kultura ekintzailea bultzatzea lanbide-heziketaren baitan, prestakuntza-jarduera eta -etapa guztietan.

- Euskal lanbide-heziketan kultura ekintzailera bideratuta ekimenak diseinatzea eta garatzea, bai irakasleen bai ikasleen artean.

5.2 Lanbide-heziketan enpresen sorkuntza areagotzea eta orokortzea, beste eragile batzuekin lankidetzan, etorkizuneko hazkundea bultzatzen duten enpresa-proiektuen garapena ere bilatuz.

- Euskal lanbide-heziketaren inguruan enpresen sorkuntza bultzatzea eta oinarri teknologiko handieneko eta hazteko potentzial handieneko proiektuak txertatzea bilatuz, bereziki industria-ingurunean.
- Ekintzailetza-proiektuak babesteko irakasleen gaitasunak eta konpetentziak indartzera bideratutako prestakuntza-programak garatzea.
- Enpresa-proiektu bideragarrietan belaunaldi-txandaketako prozesuak babestea, lanbide-heziketako ikasleen gaitasunekin eta borondateekin bat etortzea bilatuz.
- Ekintzailearen figuran jarduna ardazten duten planak koordinatzea beste eragile batzuekin.
- Genero-ikuspuntutik berrikustea ekintzailetza-eredua euskal lanbide-heziketan.

D. NAZIOARTEKOTZEA

Ardatz honetan, honako helburu eta jarduera-ildo hauek proposatzen ditugu:

6. helburua: Lanbide-heziketako euskal sistemaren nazioarteko irekiera sustatzea, euskal enpresei nazioartekotzeko beren prozesuetan lagunduz eta irakasleen eta ikasleen mugikortasuna faboratuz. Halaber, Euskadiko lanbide-heziketaren nazioarteko irekiera ahalbidetzea, sistema horren garrantzia azpimarratzeko beste herrialde batzuetan.

Euskal lanbide-heziketa oso errotuta dago enpresetan eta euskal produkzio-ehunean. Haren babesa funtsezkoa da enpresa askotarako, batez ere ETEetarako, produkzioaren, prestakuntzaren, hobekuntzaren eta berrikuntzaren arloetan. Alabaina, orain ere gure enpresei lagundu behar diegu nazioartean hedatzen eta garatzen, ingurune desberdinetan, beste kultura batzuekin eta lan egiteko beste modu batzuekin sortuko zaizkien premia berrietan. Enpresak babestu nahi ditugu atzerriko fabriketan lan egiten duten pertsonei ezagutzak helaraztean.

Gure ikasleen eta irakasleen mugikortasunaren aldeko apustua egiten jarraitzen dugu. Europako mugikortasun-programek eta truke-programek gure ikasleei eta irakasleei ahalbidetzen diete beste esperientzia batzuk hartzea eta beste kultura batzuk ezagutzea. Hori aberasgarria da haientzat arlo pertsonalean nahiz profesionalean.

Gainera, talentua erakarri nahi dugu Euskadira, euskal lanbide-heziketaren "nazioarteko campusa" garatzeko gure gaitasunak baliatuz. Lanbide-heziketako gure sistemaren garrantzia nabarmendu nahi dugu, nazioartean onartutako sistema baita, eta atzerrian erakutsi nahi dugu, gure esperientzia eta ezagutza partekatuz. Lanbide-heziketa sektore ekonomiko gisa bultzatuko dugu, Euskadin aberastasuna eta enplegua sortzeko gai dena epe luzean, bai zuzenean bai beste euskal produkzio-sektore batzuekiko duen trakzio-efektuaren bidez.

6.1 Euskal enpresei laguntzea haien nazioartekotze-prozesuetan, atzerrian prestakuntzako eta berrikuntzako premiei erantzuna emanez.

- Prestakuntza-eskaintza egokitzea nazioartekotutako enpresetako premietara, metodologia didaktikoak sortuz eta eguneratuz beste herrialde eta kultura batzuetan prestakuntza jasotzeko.
- Etengabeko prestakuntzako ekintzak ahalbidetzea atzerriko euskal enpresen fabriketan.
- Enpresekin elkarlanean aritzea beste herrialde batzuetan kokatutako fabriketan balioa sortzera bideratutako prozesuetan.

6.2 Irakasleen eta ikasleen mugikortasuna bultzatzea, ikaskuntza eta esperimentazioa faboratzen duen estrategia gisa

- Ikasleen mugikortasuna sustatzea, beste esperientzia batzuk hartzea eta beste kultura batzuk ezagutzea ahalbidetzen baitie. Hori aberasgarria da haientzat arlo pertsonalean nahiz profesionalean.
- Ikastegietako irakasleen eta zuzendaritza-taldeen mugikortasuna bultzatzea, esperientziak trukatzea eta jardunbide egokiak ikastea erraztera bideratuta, eta, era berean, ikastegietako langileen konpromisoa eta motibazioa faboratzea.

6.3 Lanbide Heziketako Euskal Sistemaren garrantzia azpimarratzea nazioartean.

- Lanbide-heziketako nazioarteko sare nagusietan parte hartzea, ezagutza eta esperientzia-trukea ekarriko dutenak, hainbat arlotan: prestakuntza, orientazioa, ikastegien kudeaketa, teknologia berriak eta berrikuntza eta hobekuntza dakarten arlo guztiak.
- Atzerriko ikasleak euskal lanbide-heziketara erakartzeko prestakuntza-programak osatzea, Euskadiko

Lanbide Heziketako Nazioarteko Campusa osatuz.
• Beste eskualde eta herrialde batzuk bultzatzea beren lanbide-heziketako sistemak diseinatzeko eta ezartzeko prozesuetan, Euskadiko ezagutza eta esperientzia helaraziz.
• Nazioarteko ikerketa-proiektuetan parte hartzea, lanbide-heziketarekin lotutako nazioarteko ikerketa- eta berrikuntza-programen esparruan.

E. LANBIDE-HEZIKETAKO ZENTROAK

Ardatz honen baitan, honako helburu eta jarduera hauek proposatzen ditugu:

7. helburua: Lanbide-heziketako zentroen eredu berria garatzea.

Beste jarduera eta proiektu mota batzuk garatzeko gai den ikastegi-eredu berri bat eskatzen du inguruan gertatutako aldaketak. Horiek pertsonen, izan ikasleak izan biztanleria aktiboa, prestakuntzaren premia aldakorrei erantzuteko erakundetzat hartu behar dira. Halaber, gai izan behar dute prestakuntzarekin, informazioarekin, orientazioarekin, ebaluazioarekin eta akreditazioarekin lotutako zerbitzuak eta ekintzak eskaintzeko.

Bestalde, nahi dugu ikastegiek enpresetan aplikatutako berrikuntza bultzatzen laguntzea; era berean enpresa berriak sortzea faboratzea; enpresei lagundu ahal izatea haien nazioartekotze-prozesuetan; inguruko aukerak identifikatzea, eta gai izatea enpresen eta pertsonen premiei aurre hartzeko.

Horretarako, lanbide-heziketako zentroak erakunde autonomo, ireki eta malgu bihurtu behar dira, berehala erreakzionatzeko gaitasunarekin, etengabe birdefinitutako helburuekin eta une oro eraikitako harremanekin.

Ikastegi horiek, gainera, aurrera egin behar dute Unibertsitatearekin duten loturan, profil profesional eta ezagutzako profil berriak garatzeko helburuarekin; prestakuntzako bi mailak ikasten ari diren pertsonen gaitasunean eta kualifikazioan hobekuntza argi eta garbi bilatuz, konplexuagoak diren produkzio-sektoretako premietara egokituago dagoen profila izate aldera.

Lanbide Heziketako Ikastegi Bateratuen sorkuntzarekin jauzi kualitatibo bat eman nahi dugu gaur egungo premiei erantzuteko aukeretan, bai pertsonen bai enpresei premiei erantzuteko. Horretarako, Ikastegi Bateratu mota desberdinak ezarriko dira (Goi Mailako Lanbide Heziketako Ikastegi Bateratuak, Berrikuntza Aplikatuko Ikastegi Bateratuak, Ekintzailetza Aktiboko Ikastegi Bateratuak, Espezializazio Aurreratuko Ikastegi Bateratuak eta beste premia batzuei erantzungo dieten beste batzuk) eta zera bermatuko dute: batetik, Planean jasotako helburuak abian jartzeko lidergoa, eta, bestetik, Europako beste herrialde aurreratu batzuetako Unibertsitatekoa ez den Goi Mailako Hezkuntza Institutuen pareko figura berri bat sortzea.

Azkenik, nahi dugu gure ikastegiak pedagogiaren, antolakuntzaren eta kudeaketaren arloko autonomia-oinarrien arabera zuzentzea. Gure ikastegiak bihurtu behar ditugu kudeaketa-unitate malgu eta eraginkor, erantzuteko gaitasun autonomoarekin, sareetan eta barneko eta kanpoko aliantzetan parte hartuz, eta Hezkuntza Administrazioarekin harreman-eredu berri bat edukiz; hain zuzen, eskaintzen dituzten zerbitzuak eta lantzen dituzten proiektuak areagotzea ahalbidetzeko, oraindik ere zurrunegiak diren antolakuntza-ereduen berezko egiturazko zailtasunak gaindituz.

Horretarako, jarduera-ildo batean lan egitea proposatzen dugu:

7.1 Lanbide-hezietako ikastegien autonomia, malgutasuna eta erantzuteko gaitasuna bultzatuko duten mekanismoak zehaztea eta ezartzea, ikastegi mota berriak sortzea bultzatuz.

• Ikastegien antolakuntzan eta kudeaketan autonomia indartuko duten mekanismoak identifikatzea eta diseinatzea, inguruarekin oso lotuta dauden autokudeatutako erakundeak osatzeko, jarduerak eta proiektuak malgutasunez, bizkortasunez, fidagarritasunez eta eraginkortasunez garatzeko gai izanda.
• Lanbide-heziketako ikastegi bateratuetako figura desberdinak garatzea; esate baterako, arlo desberdinetako goi-mailako espezializazio-ikastegietakoak, ikastegi bateratu ekintzaileetakoak eta errendimendu handiko ikastegi bateratuetakoak, besteak beste.
• Unibertsitatearekin lankidetzan aritzeko modu berriak bultzatzea lanbide-heziketako ikastegi bateratuen mota desberdinen bidez; era berean, horiek prestakuntza- eta espezializazio-programa konplexu eta osagarriak garatuko dituzte.
• Goi-mailako lanbide-heziketako ikastegi bateratuak sortzea, Europar Batasuneko beste herrialde aurreratu batzuetako Unibertsitatekoa ez den Goi Mailako Hezkuntza Institutuen parekideak.

8. helburua: Lanbide-heziketako ikastegia eraldatzea ezagutza-unitatetan, kudeaketa-sistema aurreratu bat garatuz. Sistema horrek adimen lehiakorreko prozesuak izango ditu eta sorkuntzarako eta pentsamendu eraikitzailerako gaitasuna sustatuko du

Gure ikastegien eraldaketa sakon baten aldeko apustua egiten dugu, ezagutza-unitate espezializatu bihurtuta. Horiek hainbat sektore landuko dituzte, enpresekin aliantzak eta lankidetzak bilatuko dituzte eta beren lana garatuko dute ezagutzaren hirukian oinarrituta (prestakuntza, ikerketa, berrikuntza).

Etorkizunarekiko ikuspegi estrategikoko ikastegiak izango dira, gai direnak ingurune lehiakorra ulertzeko, ezagutza erakartzeko, aztertzeko eta hedatzeko modu eta une egokian. Halaber, gai izango dira ideia berriak sortzeko eta gauzak egiteko modua etengabe birpentsatzeko, pertsonentzako eta enpresetarako balioa sortuz. Horretarako, ikastegiek gaitasun berriak garatu behar dituzte, eta sorkuntza, pentsamendu eraikitzailea, adimen emozionala eta adimen exekutiboa lanbide-heziketako ikastegien lantaldeetako zati izan behar dira.

Helburu honetan, honako jarduera-ildo honekin egingo dugu aurrera

8.1 Kudeaketa-sistema aurreratu bat garatzea, adimen lehiakorreko prozesuak izango dituena eta sorkuntzarako eta pentsamendu eraikitzailerako gaitasuna sustatuko dituena

- Lanbide-heziketako ikastegiak ezagutza-unitate espezializatu gisa osatzea, eta, sareko lanaren bidez, hainbat sektore aztertzea, enpresa, unibertsitate eta lanbide-heziketako beste ikastegiekin aliantzak eta lankidetzak bilatzea eta beren lana garatzea ezagutzaren hirukian oinarrituta (ikerketa, berrikuntza eta prestakuntza).

- Adimen lehiakorreko sistema formalizatuak diseinatzea eta ezartzea lanbide-heziketako ikastegietan; hain zuzen, horiek, ikastegien ikuspuntu estrategikotik eta ingurua ulertzetik abiatuta, prospektibako, behaketako, teknologia-zaintzako eta ezagutzaren kudeaketako prozesuak txertatuko dituzte (ezagutzaren sorkuntza, erakarpena, azterketa, erabilpena eta hedapena).

    a. Ikuspuntu estrategikoarekin: zer bilatzen dut eta zergatik. Inguruko premiak ezagutzea eta beharrezkoak diren erantzunak ematea. Aldaketetara etengabe egokitzeko eta horiei aurre hartzeko gai izatea eskatzen du.

    b. Ikuspuntu operatiboarekin: nola jarriko dut abian eraginkortasunez, nola lortuko dut informazioa, nola landuko du eta nola lekualdatuko diot behar duenari behar duen unean.

- Ikastegietan berrikuntzaren kudeaketa-eredu berri bat sortzea, sorkuntzaren garapena erraztuko duena ikastegietako funtsezko prozesuetan errutina sortzaileak ezarriz.

- Pentsamendu eraikitzailearen arloko teknikak aurrera emateko beharrezkoak diren prozesuak sortzea lanbide-heziketaren arloan hainbat proiektu abian jartzean.

9. helburua: Lanbide-heziketako ikastegi espezializatuen euskal sare bat sortzea, Gobernuak ezarritako proiektu zehatzetan produkzio-sektoreei babesa emango diena

Prestakuntza-zentro espezializatuen sare bat garatu nahi dugu, euskal produkzio-sektoreetan lehiakortasuna bultatzeko gaitasunarekin, eta Gobernuari proiektu zehatzetan lagunduz.

Sare hori lanbide-heziketako ikastegi bateratuek osatuko dute, baita ezarriko diren betebeharrak betetzen dituzten lanbide-heziketako beste ikastegiek ere, publikoek nahiz pribatuek.

Xede honetan aurrera egiteko, honako jarduera-ildo hau proposatzen dugu:

9.1 LHko ikastegi espezializatuen sare integratu bat sortzea, Gobernuak ezarritako proiektu zehatzetan produkzio-sektoreei babesa emango diena

- Produkzioko eta berrikuntzako ingurune desberdinetan espezializatutako lanbide-heziketako ikastegien sare integratuen nodo desberdinak ezartzea.
- Gobernuaren beste arlo batzuekin koordinatzea proiektu estrategikoen diseinua eta abian jartzea, espezializatutako lanbide-heziketako sareen nodoetatik abiatuta.
- Sare-nodo horien antolakuntza-, funtzionamendu- eta koordinazio-mekanismoak sortzea.

IV. blokea: Planaren gobernantza

4.1 Lanbide Heziketako IV. Euskal Planaren kudeaketa-organoen diseinua

Lanbide-heziketaren arloaren ardatz nagusia, asebete ditzakeen beste premia batzuei kalterik egin gabe, ezagutzak hartzea da, lan-merkatuan berehala praktikan jartzeko. Lanbide Heziketako IV. Euskal Plana aurrera doa indartze-prozesuan, lanbide-hezietako azpisistema tradizionalen (hasierakoa, okupaziokoa eta etengabekoa) elkarreraginean. Prozesu hori Euskadin garatzen ari da bizialdi osoko ikaskuntzari buruzko 2013ko urriaren 10eko 1/2013 Legea bezalako tresnekin eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua abian jartzearekin.

Lanbide Heziketako IV. Euskal Planak jakin badaki lanbide-heziketaren arloan eragin nabarmena duten Gobernuko lehentasunezko arloetan eskumena duten sailekin lankidetzan aritzeko beharra dagoela. Horrela, "hezkuntzaren ingurune natural" batetik abiatzen da, eta "inpaktu handia dauka euskal ekonomiaren beste arlo batzuetan; izan ere, langileen enplegagarritasunari eta enpresen lehiakortasunari eragiten dio".

Planaren planteamenduak nabarmentzen du Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak (eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak) eta Ekonomia Garapen eta Lehiakortasuna Sailak parte hartzeko beharra, sailen arteko mailari dagokionez prozesua ezartzeko, jarraitzeko eta ebaluatzeko beharrezkoak diren eragile gisa. Batekin eta bestearekin elkarreragiteak, oinarri desberdinak izan arren, indar oso positiboa sor dezake Gobernuaren Programaren oinarrizko konpromisoetako bati dagokionez: "Enplegua eta Pertsonak".

Lanbide Heziketako IV. Euskal Planaren xedea da jarduera-arlo horiekin ahalik eta modu eraginkorrenean eta efizienteenean bat egitea, baita Gobernuaren jarduera osoarekin eta Lanbide Heziketan parte hartzen duten gainerako erakunde eta eragileekin ere.

Hori horrela, Planaren Gobernantza-formula hau hartzen da aintzat. Nolanahi ere, plana eraginkortasun eta operatibitate handiena bilatzeko parametroen arabera zuzenduko da, pertsonen eta organoen komunikazio zuzena faboratuz, funtzioak garatzeko mekanismo telematikoak erabiliz, eta Administrazioko gainerako organoek sortutako informazioa berrerabiliz eta eskuragarri jarriz (gardentasuneko eta informazioa helarazteko formula ahalik eta azkarrenak eta eraginkorrenak aplikatuz).

Barneko eraginkortasun-maila

Sailak berak gehienbat berari dagozkion Planeko ekimenak bultzatzeari eta kudeatzeari dagokio.

Planaren Kudeaketa Batzorde bat osatuko da. Batzordearen burua Lanbide Heziketako sailburuordea izango da, Prestakuntzako eta Ikaskuntzako zuzendariarekin batera, eta batzorde horren kide izango dira: Lanbide Heziketako Kalitatea eta Gaitasuna Ebaluatzeko Euskal Agentziako arduraduna, Kualifikazioen eta Lanbide Heziketaren Euskal Institutuko arduraduna eta TKNIKA Lanbide Heziketaren Berrikuntza Zentroko[2]arduraduna.

Batzorde horrek eskatu ahal izango du Saileko Administrazio eta Zerbitzuetako Sailburuordetzako ordezkariren batek une zehatz batean edo modu jarraituagoan parte hartzea, ezagutzak eskainiko diren ikastegien berezko egiturei eta langileei dagokienez.

Egitura organikoari buruzko Dekretuan aurreikusitako Sailen Zuzendaritza Kontseiluaren arabera, egokia da Sailaren zati handi bat inplikatzen duten Lanbide Heziketako IV. Euskal Planaren muturrak partekatzea (Lanbide Heziketako Sailburuordetzaz gain, Unibertsitateak, Administrazio eta Zerbitzuak eta Hizkuntz Politika).

[2] Aurreikusten da erakunde horiek ordezkatu egingo dituztela IDEATEK Lanbide Heziketako Sormen Aplikatuko Euskal Institutuak, IKEI-IVAC Kualifikazioen eta Lanbide Heziketaren Euskal Institutuak eta TKNIKA Lanbide Heziketako Berrikuntza Zentroak, hurrenez hurren.

Prestakuntza eta Ikaskuntza Zuzendaritzak garatuko ditu, plan honen kudeaketa-, jarraipen- eta informazioaren tratamendu-funtzioak, sail-egituraren dekretuaren arabera dagozkionekin bat etorrita.

Sailen arteko maila

Sailen arteko koordinaziorako funtsezko organoa da Lanbide Heziketako IV. Euskal Planaren Sailen arteko Batzordea. Agerian jarri da Enplegu eta Gizarte Politiketako eta Ekonomia Garapen eta Lehiakortasuna Sailekin indartutako interrelazio-mekanismo bat izateko beharra. Premia horrek eramaten du Sailen arteko Batzorde horren formulatzat proposatzea Talde Iraunkor bat, lanbide-heziketaren arloan sailen arteko inplikazio horien erreferente egonkor eta, era berean, eragile gisa. Horrez gainera, Sail Batzordearen formula erabiliko da, eta "nukleo gogorra" izateaz aparte, garrantzizko beste arlo batzuk hartuko ditu.

Horrela, Sailen arteko Batzordearen Talde Iraunkorra honako hauetako pertsona titularrek osatuko dute: Lanbide Heziketako Sailburuordetza (batzordeburu-funtzioak izango ditu, bilerak koordinatzeko eta deitzeko), Enplegu eta Lan Sailburuordetza eta Teknologia, Berrikuntza eta Lehiakortasun Sailburuordetza. Horietako bakoitzari, arloko zuzendari edo zuzendaritzako kide batek lagunduko die (aldatu egin ahal izango da, landu beharreko gaiaren arabera).

Batzorde Iraunkor horrek lanbide-heziketako zeharkako inplikazioak landuko ditu, Planean jasotako moduan, eta pertsonen prestakuntza dinamizatzeko jarduerak integratzea eta hobetzea ahalbidetuko du, eskatutako edo ziurrenik eskatuko den lan-jarduerara bideratuta. Talde Iraunkor horrek hasierako lanbide-heziketako, langileei eskainitako prestakuntzako eta langabeentzako prestakuntzako interrelazioan aurrea egitea ahalbidetuko du. Era berean, enpresei, eta bereziki ETEei, laguntzeko premiak proposatuko ditu berrikuntza aplikatuaren arloan, eta enpresak sortzeko proiektuak oinarrituko ditu lanbide-hezietako zentroetan. Gainera, talde iraunkor horrek bere gain hartuko du prestakuntza-eskaintza sakon aztertzeko eta euskal produkzio-sistemaren premietara egokitzeko premia (zehazki, Gobernuaren Programan aldeko apustua egiten den industria-arloa), bai berehalakoak direnak, bai industria-joeretan aurreikus daitezkeenak.

Sailen arteko Batzordeak osoko bileran jardungo du Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako Sailburuordearen batzordeburutzaren pean (Lanbide Heziketako Sailburuordeak ordezkatu ahal izango du) eta, aipatutako hiru Sailburuordetzatako titularrez gain (batzordeburu gisa Lanbide Heziketako sailburuordeak jardunez gero, haren hasierako postua Heziketako eta Ikaskuntzako zuzendariak hartuko du), merkataritza eta turismoaren, gizarteratzearen, ingurumenaren, osasunaren, aurrekontuen eta Lehendakaritzaren idazkaritzaren[3] arloko arduradun bana izango du (Sailburuordetza edo Idazkaritza orokorreko titularra edo haren ordezkaria).

Sailen arteko Batzorde honek Lanbide Heziketako Euskal Sistemari dagokionez inplikatutako arlo horietan sor daitezkeen eskaerak eta beharrak antolatuko ditu.

Azkenik, zeharkako lan-arloak osatzeko, euskararen erabilera eta genero-berdintasuna bultzatzeko irizpideak txertatzea sustatuko da. Arlo horietako ordezkariak gonbidatuko dira Batzorde horretan parte hartzera edo horien iritziak helaraztera Lanbide Heziketako IV. Euskal Planaren ezarpenari, jarraipenari eta ebaluazioari buruz, indarrean dagoen artean.

Erakundeen arteko mailan

Maila honetan, Euskadiren barneko arloari dagozkion erakundeak bereizi egiten dira beste Administrazio batzuekin behar direnetatik (estatua, gainerako autonomia-erkidegoak, eta, hala badagokio, beste eskualde edo erakunde batzuk, batik bat Europakoak).

- Estatuarekiko harremanei dagozkienak dagoeneko badauden bideetatik egingo da, bai bide formaletatik bai zuzeneko kontaktuaren bidetik.

[3] Kasu honetan, Gobernuaren Ekintzaren eta ZTBPren koordinazio-funtzioak egiteko ikuspuntu bikoitzarekin.

- Gainerako autonomia-erkidegoei dagozkienak, indarrean dagoen lege-esparruaren baitan, Euskadirako interesgarriak izan daitezkeen esperientziak eta jardunbide egokiak trukatzeko aukera bilatuko da, egon daitezkeen foroen edota aldebiko kontaktuen bidez.
- Antzeko moduan egingo dira estatuaren eremutik kanpoko beste eskualde edo erakunde batzuei dagozkienak, Lanbide Heziketaren nazioarteko irekieraren helburuaren barruan.

Bereziki aipatu behar da barneko mailako erakundeen arteko harremana, eta horretarako sortu da Lanbide Heziketako Euskal Kontseilua (222/1998 Dekretuak aldatzen duen 100/1994 Dekretuaren aurreikuspenen arabera arautua gaur egun). Etorkizuneko Lanbide Heziketako Euskal Legetik erator daitezkeen aldaketen bizkar, egitura hori hartzen da foro gisa, beste Euskal Administrazio batzuen eta gizarte-eragileen ikuspuntua adierazteko, lanbide-heziketako premiei eta eskaerei dagokienez.

Aurreikusitako mekanismoak indartu egingo dira bere aldetik, giltzarri diren arloetako arduradunekin informazioa modu egonkorrean trukatzea bilatzearekin, elkarturiko sektore-arloen premiak jasotzen dituzten informazio-iturrien erabilera partekatua bultzatzeko asmoz (bereziki, enpleguaren eskaintza eta eskaera; industria- eta produkzio-joerak; prestakuntza-eskaintza eta eskaera hasierako prestakuntza-fasean daudenei dagokienez; lanean ari diren langileak, eta langabeak). Xede horretarako, dagokien arduradunen artean inpaktu handieneko arlotzat jotako Planen eta gainerako ekimen garrantzitsuen informazioa trukatuko da (beste batzuetara zabaltzeari kalterik egin gabe).

Adierazitako guztiarekin bat etorrita, sortzen joaten diren informazioaren jarraipena egiteko xede diren tresna gisa identifikatu dira honako hauek:

- Enpleguaren Plan Estrategikoa, Euskadiko Industrializazioaren Plan Estrategikoa eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana (RIS 3 Euskadi)
- Ekintzailetza Jarduera Bultzatzeko Plana, Enpresen Nazioartekotzeko Plana eta Euskadiko Txertaketa Plana
- Bizialdi Osoko Ikaskuntzako Euskal Plana
- Enplegurako Prestakuntzako Planak eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren beste plan batzuk
- HOBETUZ Langileen Prestakuntzarako Euskal Fundazioko deialdiak eta Ekintza Plana

4.2 Jarraipen- eta ebaluazio-sistema

Lanbide Heziketako IV. Euskal Planaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko sistema hedatzeko, aginte-koadro bat zehaztu da. Ondoren agertzen dira haren xehetasunak. Bi maila izango ditu: jarduera eta eragina. Lanbide Heziketako Sailek eta Zentroek zuzenean garatutako jarduera neurtu nahi du Planaren esparruan, baita horien ekarpena ere ezarritako helburuen lorpenean. Aginte-taula diseinatu da zehaztasuna, lautasuna eta garrantzia oinarrizko irizpide gisa hartuta.

Lanbide Heziketako Euskal Kontseiluaren eskumena da, besteak beste, plana nola gauzatzen den kontrolatzeko funtzioa da, eta, horretarako, urtero txosten bat egitea planaren aplikazioaren eta betetze-mailaren ondoriozko emaitzak ebaluatzeko.

1. Eraginaren adierazleak. Europa-mailan lanbide-heziketarekin lotutako adierazle nagusien bilakaera ezagutzea du xede. Jakin badakigu gure ekintzak, berez, eta epe motzean, inpaktu mugatua izango duela ezarri ditugun helburuak lortzeko bidean, baina beharrezkotzat jotzen dugu dagozkien eremuen bilakaera ezagutzea, hartara datu horiek interpretatzeko eta legegintzaldian zehar gure plana ebaluatzeko eta egokitzeko.
2. Jarduera-adierazleak. Helburu bakoitzari dagozkion ekintzek zuzenean sortutako jardueraren berri ematen dute. Esanguratsuenak diren jarduera-adierazleak hautatu dira, eta ahal izan denean, gaur egun dauden adierazleak eta Lanbide Heziketako Sailburuordetzaren kudeaketan egunerokoan erabilitako adierazleak erabili dira.

Eraginaren Adierazleen Sistema

		2006-2011 EGOERA %						AURREIKUSPENA %				ERREFERENTZIA-PUNTUA
		ESPAINIA		EUSKADI		EB		ESPAINIA		EUSKADI		EB
		2006	2011	2006	2011	2006	2011	2015	2020	2015	2020	2020
Gehienez ere bigarren hezkuntzako lehen etapa bukatu duen eta ikasten edo prestatzen jarraitu ez duen 18-24 urteko biztanleriaren ehunekoa.		30,5	24,9	14,5	11,5	15,5	12,8	23	15	10,8	8,6	% 10
INSNko 3 gradudunen tasa gordinak	Batxilergoa	% 46,8	% 50,3	-	68,7	-	-	50,5	54,3	-	-	-
	Teknikaria	10,9	20	-	27,8	-	-	21,6	26	-	-	-
Unibertsitateko eta unibertsitatekoa ez den hezkuntzan titulatutako 30-34 urteko biztanleriaren ehunekoa (INSN 5A eta 5B)		38,1	40,1	59,2	61,7	28,9	35,8	42,8	44	65	68	% 40
Inkesta egin aurreko lau astetan hezkuntza- edo prestakuntza-ekintza batean parte hartzen duen 25-64 urte arteko biztanleriaren ehunekoa		10,4	10,7	12,4	13,7	9,5	9	12,6	15,2	15	17	% 15
Lan egiten duen eta INSNko 3,4,5,6 erreferentzia-urtearen aurreko 1-3 urte artean graduatutako 20-34 urte arteko biztanleriaren ehunekoa		82,3	62,4	-	-	% 79	75,7	-	-	-	-	% 82

Jarduera Adierazleen Sistema

Eremu estrategikoak	Helburuak	Jarduera-ildoak	Adierazlea	2014	2015	2016
A. Heziketa integratua	1. Egokitzapena eta Espezializazioa	1.1 Prestakuntza-eskaintza espezializatuagoa eta lehiakortasun- eta enplegagarritasun-eskakizun berrietara egokitutakoa garatzea	Eskainitako espezializazio-ikastaroen kopurua			
			Eskainitako espezializazio-ikastaroetan parte hartzen duten ikasleak (pertsona-kopurua) eta kopuru osoarekiko %			
			Urrutiko prestakuntzan eskainitako moduluen kopurua			
			Urrutiko prestakuntzako moduluetan parte hartzen duten ikasleak (pertsona-kopurua) eta kopuru osoarekiko %			
			Prestakuntza partzialean eskainitako moduluen kopurua			
			Prestakuntza partzialeko moduluetan parte hartzen duten ikasleak (pertsona-kopurua) eta kopuru osoarekiko %			
			Gailuaren bidez eskainitako gaitasun-unitateen kopurua			
			Gailuan parte hartzen duten ikasleak (pertsona-kopurua) eta kopuru osoarekiko %			
			Gailuan parte hartzen duten pertsonek eskuratutako kualifikazio-kopurua (tituluak, ziurtagiriak, etab.)			
			Eskainitako ziurtatu daitekeen enplegurako prestakuntza-ikastaroen kopurua			
			Ziurtatu daitekeen enplegurako prestakuntza-ikastaroetan parte hartzen duten ikasleak (pertsona-kopurua) eta kopuru osoarekiko %			
			Ziurtatu daitekeen kualifikazio bat lortzen duten ikasleak (pertsona-kopurua) eta kopuru osoarekiko %			
			Eguneratze-prometan parte hartzen duten irakasleen %			
		1.2. Ikastetxeetako irakasleen prestakuntza indartze lanbide-heziketa aldatzeko eta transformatzeko behar diren gaitasun eta jarrera berriak gara ditzaten.	Irakaskuntza espezializatuko ingurunetara egokitutako metodo berriak erabiltzeko gaituta dauden irakasleen kopurua.			
		1.3 Prestakuntza duala alternantzian indartzea, gaitasunak garatzea eta arlo profesionaletara egokitzea bizkortzeko bide gisa.	Prestakuntza duala alternantzian ereduan parte hartzen duten ikasleak (pertsona-kopurua) eta kopuru osoarekiko %			
			Industria-enpresetan prestakuntza duala alternantzian ereduan parte hartzen duten ikasleen %			
			Prestakuntza duala alternantzian ereduan jarduten duen ikasleen laneratze-maila (programa garatzen duten enpresak kontratatutako pertsonen %)			
			Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sareko zentroetan Prestakuntza duala alternantzian eredua garatzen ari diren ikasleak (pertsona-kopurua) eta kopuru osoarekiko %			
		1.4. Orientazio-arlo berriak	Orientazio integratua eskaintzen duten zentroen kopurua			
			Orientaziorako 2.0 sistemak erabiltzen dituzten ikastegien kopurua			
		1.5 Eredu eleaniztuna ezartzea, euskara etengabe babestuz eta beste hizkuntza batzuk ikasiz	Lanbide-heziketa eleaniztuna eskaintzen duten zentroen kopurua (prestakuntza-ziklo 1 edo gehiago)			
			Prestakuntza-zikloak euskaraz egiten dituzten pertsonen kopurua eta kopuru osoarekiko %			
		1.6.				
	2. Berrikuntza Pedagogikoa	2.1 Ikaskuntza-eredu berriak	Hezkuntza-metodologia berritzaileak txertatzen dituzten prestakuntza-zikloen kopurua			

			Sailaren aurrekontua (€) lanbide-heziketako zentroen modernizazio metodologikorako eta teknologikorako			
	3. Etengabeko hobekuntza	3.1. Bikaintasunaren eta kalitatearen bermea	Ziurtatutako prozesuen araberako kudeaketa-sistemak dituzten zentroen %			
			Kalitate-sistemak garatzeko EFQM-HOBIDE eredua erreferentziatzat duten zentroen kopurua			
B. Berrikuntza Aplikatua	4. Berrikuntzari bultzada ETEetan	4.1 Ingurune estrategikoak eta espezializazio-arloak	Kudeaketan etengabeko hobekuntzako LEAN metodoa txertatu duten zentroen kopurua			
			Enpresen lehiakortasuna indartzen duten aukeren garapenerako lanbide-heziketako zentroen eta ETEen arteko lankidetza-proiektuen kopurua			
		4.2. Garatzeko bidean dauden sektoreen espezializazio-arloan	Lanbide-heziketako zentroek garatutako berrikuntza aplikatuko proiektuen kopurua			
		4.3. Berrikuntza aplikatuko proiektuak	LHko ikastetxeek garatutako berrikuntza aplikatuko proiektuen kopurua			
		4.4 Pentsamendu eta errutina sortzaileak	Lanbide Heziketako Zentroen Sareak sortutako espazioen kopurua pentsamendu eta errutina sortzaileak bultzatzeko			
C. Ekintzailetza aktiboa	5. Jarduera Ekintzailea Indartzea	5.1 Kultura ekintzailea	Ekintzailetzarako sentsibilizazio- eta prestakuntza-jardueretan parte hartzen duten ikasleak (pertsona-kopurua)			
		5.2 Enpresak sortzea	Industria-sektorearekin lotuta Urratsbat programan sortutako enpresen %			
			Hirugarren urtea bete duten Urratsbat programaren bidez sortutako enpresen %			
D. Nazioartekotzea	6. LHren Nazioarteko irekiera	6.1 Enpresetara laguntzea	Atzerriko enpresetan prestakuntza duala alternantzian eredua egiten ari diren ikasleak (pertsona-kopurua)			
		6.2 Ikasleen mugikortasuna	Atzerrian truke-prometan parte hartzen ari diren ikasleak (pertsona kopurua), (Adib.: Erasmus, Leonardo, etab.)			
		6.3. Irakasleen mugikortasuna	Atzerrian mugikortasun-prometan parte hartzen ari diren irakasleak (pertsona kopurua),			
		6.4 LHko euskal sistemaren garrantzia nabarmentzea	Euskal LHan parte hartzen ari diren atzerriko ikasleak (pertsona-kopurua)			
			Euskal lanbide-heziketako zentroek parte hartzen duten lankidetzako nazioarteko proiektuen kopurua			
E. LHko Zentroen Sare Integrala	7. Ikastegi eredu berria	7.1 Malgutasuna, autonomia eta antolakuntza berria	LHko euskal sarean integratutako zentroen kopurua			
			Goi-mailako LHko zentro integratuen kopurua			
			Errendimendu altuko ereduekin kudeatzen diren zentroen kopurua (mini-eskolak)			
	8. Ikastegia ezagutza-unitate gisa	8.1. Kudeaketa aurreratua: adimen lehiakorra, errutina sortzaileak eta pentsamendu eraikitzailea	Adimen lehiakorreko sistemak txertatu dituzten LHko zentroen kopurua			
			Errutina sortzaileak eta pentsamendu eraikitzailea aplikatzen dituzten zentroen kopurua			
	9. Lanbide-heziketako zentro espezializatuen sarea	9.1 LHko sare-nodo espezializatuak sortzea, ikastegien arteko lankidetza sustatzen dutenak eta Gobernuak ezarritako proiektua jakinetan hainbat produkzio-sektorei laguntzea sustatzen eta bultzatzen dutena.	LHko sare-nodo espezializatuetan parte hartzen duten zentroen kopurua			
			Sustatutako produkzio-sektoreekin lankidetzan egin eta hainbat sare-nodotan martxan jarritako proiektuen kopurua.			

V. multzoa: Ekonomia- eta aurrekontu-alderdiak.

LHko IV. EUSKAL PLANA	2015	2016
1.- PRESTAKUNTZAREN ARLO INTEGRATUA	79.709.592 €	84.174.518 €
LHko ZENTROREN SARE INTEGRALA	57.287.342 €	58.412.342 €
Funtzionamendu-gastuak	13.022.947 €	13.022.947 €
Ekipamendua	6.685.246 €	6.685.246 €
Hasierako prestakuntza	8.569.149 €	8.569.149 €
Enplegurako prestakuntza	29.010.000 €	30.135.000 €
EUSKAL HERRIKO OINARRIZKO LHKO IKASKETA INTEGRATUEN IBILBIDEA	21.027.268 €	24.367.194 €
INFORMAZIO, ORIENTAZIO ETA HEDAKUNTZAREN KUDEAKETA	1.394.982 €	1.394.982 €
2.- BERRIKUNTZA APLIKATUAREN ARLOA	7.231.379 €	7.377.805 €
BERRIKUNTZA APLIKATUA	5.251.349 €	5.361.349 €
IKASKUNTZA METODOLOGIA AKTIBOAK	782.030 €	782.030 €
ETENGABEKO IKASKUNTZA	1.198.000 €	1.234.426 €
3.- EKINTZAILETZA AKTIBOAREN ARLOA	799.800 €	799.800 €
KULTURA EKINTZAILEA	145.000 €	145.000 €
LHKO ZENTROETAN ENPRESAK SORTZEA	654.800 €	654.800 €
4.- EUSKAL LHKO NAZIOARTEKOTZEAREN ARLOA	940.000 €	940.000 €
EUROPEAR PROIEKTUAK. NAZIOARTEKO SAREAK	940.000 €	940.000 €
5.- AZPIEGITURAK	600.000 €	7.900.000 €
AZPIEGITURAK	600.000 €	7.900.000 €
TOTAL	89.280.771 €	101.192.123 €